

2008ko ekaina

72. zenbakia

Aikor!

txorierriko aldizkaria



Etxean gaude



Mascotas Maider

Konpainiako animaliak

narrastiak
txoriak
marraskariak
hudoak
ornogabeak
arrainak
txakurrak eta katuak, enkarguz

Txakurren ile-apaindegia

Osagarriak

kaiolak
arrainontziak
terrariumak

Elikadura

pentsuak
animalia-jan bizirik
animalia-jan izoztua



Mungialde et. eta Gernikako arbolaren txokoan
48160 Derio
T: 94 404 21 80

Astelehenetik ostiralera: 10:30-13:30 16:30-20:30
Larunbatean: 11:00-14:00



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ixone Zubieta, Jose Antonio Lekue, Sabin Arana, Igor Urrutikoetxea, Oihana Astobieta, Belen Gana, Iñaki Bilbao, Jon Ander Gangotit, Gorka Eguia, Sergio García, Inés Serrano, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Kabinaburua



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

16 Aldekoneko jaiak



25 Goi-Alde dantza taldea, Turkian

30 Gorondagane eskolako mendi taldea



12 Asier Hormaza



22 Loiuko jaiak

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 12Gurean izan da...
Asier Hormaza 14Gaztea eta... Oihane Goienetxe
16Aldekoneko jaiak 22Loiuko jaiak 25Goi-Alde dantza
taldea, Turkian 26Behargintza 28Eskolatik lanera
30Gorondagane eskolako mendi taldea
32Txorierriarrak munduan... Kurdistan
34Txorierri ezagutu 35Argazki zaharra
36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda

**LEANDRO
LANDETA**



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalca, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK



Lehendakari Mendi Plaza, 6
48170 ZAMUDIO Bizkaia
Telefonoa: 94 452 14 68

BAR BIDE-BI



Goizeko 5etatik
aurrerazabailik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3



JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Ez da urte asko oraindik erregaiak larregi erabiltzearen erruz petrolio amaizten doala esaten zutela batzuek, eta golpera ateratzen zirela beste batzuk hori frogatu barik zegoela esanez, eta ezin dela beldurraren teoria erabili gizarte izutzeko.

Hara non, urte gutxiren buruan, petrolio iturrien agortu ezina sutsu defendatu izan zutenek, petrolio enpresa handien ordezkariak eta lobbyek, diote petrolio agortzen dagoela, gaur egungo energiaren kontsumo maila ezin dela ziurtatu eta lehenbailehen iturri berriak bilatu beharra dagoela.

Iturri berrien artean, zerealekin egindako energia mota berria ekoiztu behar ei da; eta ez hain berrien artean, zentral nuklearen alternatiba berrindartu. Hau guztia gorago aitatu ditugun enpresen ordezkariak eta politikari batzuk ere zabaltzen dabilta hedabide indartsuen laguntzaz. Hori bai, ingurumenaren aldeko politika egokia indartzeko onena dela adieraziz, munduko lurralde pobreen gosearen aurka egiteko jokabiderik egokiena dela esanez.

Ez diote euren buruari galdetzen zergatik gertatzen den hau guztia. Iturri naturalak (petrolio putzuak, ura...) agortzen ba-

“ Petrolio putzuen jabeek “putzu-aberats” berri bat gura dute zerealen produkzioa kontrolatuz ”

Zerealak gizakiarentzat, eta iturri naturalak herritarren esku

dira zergatik da? Gure jokabidea aldatu egin beharko denik pentsatu ere ez dute egiten.

Orain “bioerregaiak” kontsumitu behar dugu, zertarako? Ingurumenari mesede egiteko, edo petrolioarekin aberasten diren berdin-berdinak irabazten jarraitzeko? Ez dute garraio eta energia kontsumoaren birplanteamendurik egin gura.

Orain petrolio putzuen jabeek “putzu-aberats” berri bat gura dute zerealen produkzioa kontrolatuz. Aspaldion munduan zehar bultzatzen den nekazal politikaren

ondorioz, baserri guneak hustuz doaz, erregai hau egiteko zerealak landatuko diren tokian tokiko baserritar eta indigenak bota egingo dituzte euren lurretatik (Amazonetan gertatzen den moduan), monolaborantza areagotu egingo dute eta ekosistemaren aniztasuna oraindik ere gehiago murriztu.

Baserri gehiago galduko da, txiroenek hirietako gune pobreetara desplazatu beharko dute eta zerealak gizakiak jateko barrik, mundu aberatsean (geurean), erregaiak erabiltzeko ekoiztuko da.

Derioztarrak mundura!

Nori ez litzaioke gustatuko munduko bazter guztiak ezagutzea, bertan dauden paisaia bitxiak ikustea eta, zelan ez, munduan dauden kultura eta ohitura hain ezberdinetan murgiltzea. Baina, lastima, gehienok ez daukagu ez astirik, ez dirurik hori egiteko.

Uda heltzeaz dagoela, ohikoa izaten da galdera hau: “Zu, nora zoaz oporretan?” Eta erantzuna zenbat eta herrialde exotikoagoa izan, hainbat hobea dela ematen du. Baina, ze demontre, aukera izan ezkerro...

Ekainaren hasieran, astebetean zehar, munduko kontinente ezberdinetan bidaiatzen ibili diren herritarren istorioak entzuteko aukera paregabea izan genuen Derion. Bakoi-tzak herrialde hori aukeratzeko arrazoiak, bidaiatzeko modua, bertakoe-kin izandako harremanak eta aurkitutako trabak kontatu zizkigun, baita ikusitako paisaien hainbat argazki erakutsi ere.



IXONE ZUBIETA
(Tximintx euskara elkartearen kidea)

Gu ere haiekin ibili gara astebe-
tez, arratsalde bakoitzean mundu
zahar honetako kontinente batetik,
eta guzti hori Deriotik mugitu gabe.
Eskerrik asko gurekin esperientzia
hori konpartitu nahi izan duzuen
guztiei, nik, behintzat, asko disfruta-
tu dut eta!

Ondo pasa oporretan, zoazen
lekura zoazela, eta ea datorren urte-
an Derioko puntu ezberdinetan zure
bidaiaren zati txiki bat konpartitzeko
aukera daukagun.

BIDE GORRI
Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8000atxak irekia
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 76 75

CARROCERIAS
TXORIERRI
Iker / Andoni Navea
R-M
TXAPA ETA LABEINTURA
Torreanagotzi Pol. Vial sat C 10, Nave BG 1 48160 Zamudio BIZKAIA
Tel: 94 460 29 03

Garbitzekak
Ekorroni
Tel: 94 452 75 61
94 452 35 91
Uztarotz 1, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Fax: 94 452 35 93



Ekaina estu eta larri hasi genuen. Hilaren lehenengo egunean euri-zaparrada galanta bota zuen, eta azken 25 urteetako uholderik larrienak bizi izan genituen, zoritxarrez. Kalte handiak izan ziren Bizkaiko hainbat herritan –Getxo, Erandio, Trapaga eta Muskiz, esaterako-, eta txorieritarrok ere uholdeen ondorioak pairatu genituen.

Asua ibaia euriz handituta gainezkatu zen Sondikan, eta urak Ola auzoko etxe batzuk eta Sangroniz auzoko garajeak eta lonjak hartu zituen. Industrieguneetako pabiloietan ere izan ziren kalteak, eta errepidea moztu behar izan zen Izarza bidean eta Txorierriko korridoreko sarbi-dean.

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak iragarri duten moduan, diru-laguntzak emango dizkiete kaltetuei, uholdeek eragindako kalteak konpontzen laguntzeko. Edizio hau itxi orduko, 15 lagunek aurkeztu dute eskaria Sondikako Udaletxean. Beste alde batetik, udal ondasuntan-eta 12.000 euroko galerak izan direla jakinarazi du Udalak.

Hamabost sondikoztarrek aurkeztu dute erreklamazioa, uholdeak direla-eta



Argazkiak: Iratxe Orue

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°11'31" N

www.gaminiz.com



**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, knademaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburua,
papergintza eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, I
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Doyan gimnasioko neska-mutilek maila handia dutela erakutsi dute

Maiatzaren amaieran, Euskadiko *Pumse* Txapelketa izan zen Etxebarrin. *Pumseak* erakustaldiak dira taekwondon.

Doyan Derioko klubeko 15 lagunek hartu zuten parte txapelketan, eta oso emaitza onak lortu zituzten beheko kategorietan. Aitor Merodiok lehenengo postua lortu zuen benjamin mailan, eta Kerman Arranz txapelduna izan zen kimu mailan. Markel Larrabeitiek eta Anne Jau-regik hirugarren postua eskuratu zuten haurren kategorian, eta Erlantz Atu-

txa bigarren gelditu zen junior mailan. Asier Rodriguez klubeko maisua txapelduna izan zen senior 2 kategorian.

Beste parte-hartzaileek ere oso erakustaldi ona egin zuten: Ekaitz, Beñat, Sara, Leire, Nagore, Ivan, Ander, Irantzu, Martin, Iñigo eta Garikoitz.

Beste alde batetik, Kerman Arranzek Espainiako Teknika Txapelketan hartuko du parte urrian.



Txapelketak, erromeriak eta dastatzeak, Goitioltzako jaietan

Gero eta hurbilago dabez lezamarrek. Uztailaren 11tik 13ra bitartean Goitioltzako jaiek izango dira, eta asteburu osoan zehar adin guztiei zuzendutako ekintzak edukiko dabez auzoan. Parke botanikora urtekerea, herri bazkaria, erromeriak, mus txapelketea, olinpiadak... Komisinoak betebeharrak egin dabez. Horrezaz ganera, bertso-saioa izango da domekan. Saioan Fredi Paia, Jon Maia, Arkaitz Estiballes eta Xabi Paia bertsolariek hartuko dabe parte; gai-jartzaile lanetan Xabier Amuriza ibiliko da.

Uztailak 11, barikua

20:00: Txupinazoa eta jaien hasiera

20:30: Txan magoa

22:00: Erromeria, Haitzama taldearen eskutik

Uztailak 12, zapatua

10:00: 'Goitioltza ezagutu'. Urtekerea parke botanikora

15:00: Herri bazkaria (Tikeak, herriko dendetan)

17:30: Herri olinpiadak: zaku karrerea, asto karrerea, lokotxak eta traineruak...

19:30: Herri kirolak: desafioa aizkoran

21:30: Sardina eta saiheski jana

22:00: Dantzaldia: Patxi 1,2,3

23:30: Erromeria: Jo ta hanka

Uztailak 13, domekea

13:00: Produktu dastaketa: txakolina, pintxoak... Zorritzetan euskera alkartearen eskutik

16:00: Mus txapelketea

17:00: Umeentzako jolasak

19:30: Bertso saioa


**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arretentzen kalea, 11 - 1. urte,
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 905 00 33 17




Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio


Txarritako etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazan kalea, 1 (lonja)
Telefonoa eta faxa: 94 452 11 60
48170 Zamudio (Bizkaia)


GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Bilbo: Salmeru plaza, 5 - Txarritako Etorbia, 7. Solina, 1. Orena. - 400 11 08 040
Teléfono 94 452 80 10 Fax 94 452 80 12
Zamudioko Teknologia: Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74


Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Dizainatzaile Grafikoa


IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Poligono Torrelagotiti P.B.B.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
e-mail: gonzalo@vertdigo.es
Tel. 94 452 22 59 Fax 94 452 22 34

OSKARBI
fotografoak

JOSE ITA AIZPUEZ KOLA

TALERRI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apuez@euskalnet.net

ZAMUDIO MOTOR 



94 452 1616
94 452 1646

Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA



Espaloiak eskatu dituzte Kurtzen

Kurtze auzoko etxebizitza-blokeetako administratzaileek eta Lezama Bizirik auzo elkarteak Errebindikazio Eguna antolatuta zuten ekainaren 21erako. Aspalditik dabilta auzoan hainbat hobekuntza eskatzen, "eta orain arte kasu gutxi egin digute. Hitzak entzun ditugu; baina ekintzarik batere ez". Auzokoek eskatzen dute Kurtze auzoa herrigunearekin lotzen duen espaloia konpontzeko eta errepidearen ezkerreko aldean beste espaloi bat egiteko. "Hogei urtean errepidean egin dira hobekuntza guztiak, eta oinezkoentzako espaloia egoe- ra negargarri eta arriskutsuan dago. Oin- bideak Kurtzekoentzat ez ezik lezamar

guztiontzat ere dira beharrezkoak".

Beste alde batetik, azaldu dutenaren arabera, errepide nagusian auzotik sartzea arriskutsua da eta istripu batzuk izan dira. Horregatik behar diren segurtasun neu- rriak hartzeko eskatzen dute. Azkenik, Kurtze auzoan berdegune bat egiteko es- katzen dute.

Zapatuan argazki erakusketa antolatu zuten, auzoko lagunek dituzten zailtasu- nak salatzen. Horrezaz gainera, kirol txapelketak —ume-auto eta guzti— egin zi- tuzten auzoaren eta udaletxearen arteko zatian, eta kopaua eskaini zen auzoko "bulebarrean".

Mankomunitateak Zilarrezko Erratza saria jaso du

Ategrus elkarteak Zilarrezko Erratza 2008 saria eman dio Txorierriko Mankomuni- tateari. Elkarte tekniko hori ingurumenaz eta hondakinen kudeaketaz arduratzen da eta sari horrekin goraipatzen ditu udal, enpresa edo erakundeek hiri garbiketaren eta hondakinen kudeaketaren arloan aurre- ra eramandako politikak.

Sariak Madrilan banatu ziren eta Man- komunitatearen izenean hara joan ziren Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea, Vicen- te Arteagoitia Loiuko alkatea, Lander Aiarza Derioko alkatea, Gorka Carro Son- dikako alkatea, Mankomunitatearen presi- dentea. Saria Carrok jaso zuen: "Harro gau- de, sari honek ingurumenarekin eta gara- pen iraunkorrarekin duelako lotura han- dia. Txorierriar guztion ahalegina hartzen du aintzat. Hala ere, lanean jarraitu behar dugu".



Miguel Angel Lekue, garraioalaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

PELUKERIA
Estetika
94 455 81 44
Argudiñ 27. 48100 Larrabetzu (Bizkaia)



Oguiza Hartz Klinika
Klinika eta diagnostiko
Larrabetzu, 1 • 48100 LARRABETZU • Telefonoa: 94 405 68 90

J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfnua: 94 455 89 41
LARRABETZU

ANKAPALU
LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

Zamudioko Udalak aho batez gaitzetsi eban ETaren atentatua



ETak lehergailu bat ipini eban ekainaren 8an El Correo egunkariak Zamudion duen errotatiban. Lehergailuak goizaldeko hirurak aldean egin eban eztandea, eta momentu horretan 50 bat langile egozan instalazioetan. Lehergailuak eraikinaren hormaren 40 metro inguruko zatia bota eban behera, baina ez zan zauriturik egon.

Hurrengo egunean, osoko bilkura bereziko deia egin eban Zamudioko Udalak. Bilkura horretan Udaleko bozeramaileen batzordeak aho batez gaitzetsi eban atentatua. "ETak barriro erakutsi deusku ez dala kapaz ulertzeko Euskadi herri plurala dala, pentsakera, adierazpen eta informa-

ziorako askatasuna daukana", esan eban Sorkunde Aiarza alkateak, "Euskal gizartearen ahoa zarratzen ahalegindu dira barriro, baina gure herri honek ez dau itxiko hori gertatu daiten, orain arte itxi ez dauen legez". Udalak alkartasun osoa adierazi eutsen *El Correo* egunkariari eta haren langile guztiei Zamudioko herriaren izenean.

Bilkuraren ostean, elkarretaratzea egin eben udaletxearen aurrean. Elkarretaratze horretan parte hartu eben, besteak beste, Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak, Belen Greavesek eta Juan María Atutxak. Txorierriko alkateak, udal ordezkariak eta hainbat herritar be bertan izan ziran.

Burdinazko Gerrikoaren aztarnak ikertzen dabil Sancho de Beurko elkarteak

Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak Burdinazko Gerrikoaren gotorlekuak eta planimetria ikertu eta katalogatzeko enkargua eman dio Sancho de Beurko elkarteari. Beharrak aurtentzen hasi dira, eta landa-lanez gainera, gotorlekuak eta lubakien inbentarioa egin dute. Artxiboak ere bisitatu egin dituzte.

Sancho de Beurko elkarteak nahiko aurreratuta dute gotorlekuak katalogatzea eta, azaldu duten moduan, tipologia anitza topatu egin da: metrailadore-habiak, morteroen kokalekuak, mota ezberdinetako aterpeak eta babeslekuak... Urte honetan aurreikusitako lanak Sopelan hasi eta Larrabetzun amaituko dituzte.

Proiektuak Burdinazko Gerrikoaren aztarnen egoera ezagutzeko plano-gida osatzea du helburu. Hori lagungarria izango da Gerrikoa zelan zaindu aztertzeke orduan.

Euskadiko Gobernuak Burdinazko Gerrikoa altxatzeko agindua eman zuen 1936. urtean, tropa frankistek aurrera egitea eragozteko eta Bilbo eta inguruko herriak babesteko.

Azoka Ekologikoa egingo da Loiun

Baserriak, artisautzak eta ekologiak hitzordua izango dute uztailaren 13an Loiun. Aurten hirugarren urtea da azoka ekologikoa egiten dela Larrondo auzoan. Han 17 ekoizle ekologikok eta zazpi eskulangilek hartuko dute parte, eta eguerdiko 12:30etik aurrera pintxo eta ardo ekologikoak dastatuko dira. Beste alde batetik, umeentzat tailerrak egingo dira eta puzgarriak ere izango dira.



ERREKA

CONDIO

ETXEA

Egunero menua, kaleburuko menu berria, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, famillien bazkariak

Artzeaga, 80
Zamudio 48110 (Hizkuntza)
Iteloa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

AMAIURU ZAMUDIO
CATERING BAR ARETXEA

OSORRIAK - PINTXOAK - PLATER KONJUNTUAK - EGURGIA MENDIA - ARDO KARIKA

HARAGIETEGIA
ALBERTO

Txorierri etorbidea, 5
Iteloa: 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

Abelino Arraindegia

Gorbea Kalea, 4 - 48160 DERIO
Iteloa: 94 602 75 25 6

ADARVE KAFETEGIA

Especialitatea:
gizakiak
plater konjuntuak
pintxoak

GIRO ONA

Solako, 2 DERIO
TEL: 94 603 95 31

Inmobiliaria
ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobiela: 607 32 35 53 48160 DERIO

Zortziko txikien eskolako ikasleek agur esan diote ikasturteari



Ekainaren 10ean, Txorierriko herri ikastetxeen arteko bertso topaketak egin ziren Sondikako Kultura Etxean. Topaketa horiek amaiera eman zioten ikasturteari, eta bertsolaritza eskolan ibili diren ehun ikasle inguruk hartu zuten parte bertan.

Eskolan ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera izan zuten ikasleek, eta eskola bakoitzak bere bertso sorta kantatu zuen. Horrezaz gainera, Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballes bertsolariek saio bat egin zuten eta gaztetxoek kantaldi bat egin zuten gitarra-jotzaile batek lagundu-

rik. Tomas Ordeñanak eta Josu Landetak diploma eta oroigarri bana eman zien Txorierriko herri ikastetxeen ordezkariari Mankomunitatearen eta Bertsozale Elkartearen izenean. Irakasleak ere animatu ziren bertsoan aritzera.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek hamar urte daramatza bertso eskolak ematen Txorierriko herri ikastetxeetan. Ekimena Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleentzat da eta gaztetxoek bertsolaritza zer den erakustea du helburu, baita zaleak egitea ere.

Argazki Rallyaren sariak banatu dituzte Derion

Hilaren hasieran Derioko VIII. Argazki Rallyaren sari banaketa egin zen Gurea Aretoan. Ekitaldian 30 lagun inguru batu ziren.

Rallya Derioko Argazki Taldeak (DAT) antolatzen du urtero, eta arduradunek hiru sari banatu dituzte aurten. Irabazleak hauek izan dira: argazki-bildumarik onena, Nerea Negro; argazkirik onena, Susana Calleja; eta argazkirik originalena, Mikel Martin. Lehenengo sailkatuak 150 euro

jaso zuen saritzat; eta bigarrenak, 100 euro. Hirugarren sailkatuari 75 euroko txartela eman zioten, Derioko Dendarien Elkartearen kide diren dendetan erosteko.

Sariak banatzeaz gainera, finalisten argazkiak ez ezik parte-hartzaile guztien argazkiak ere proiektatu ziren Gurea Aretoan. Ekitaldia amaitu ondoren, bazkaria egin zuten argazki taldekoek Lezamako sagardotegi batean, elkartearen 25. urteurrena ospatzeko.



harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autoocasion
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRABERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 648 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

CORMORAN
Regalos y Complementos
Gernikako arbola, 2 * 48160 DERIO * Tel. 94 106 05 24

MAPFRE
DERIO
Paseo de la Virgen 2/5
48160 Derio Bizkaia
T + 94 454 85 90
F + 94 454 05 98
artara@mapfre.com

ARRATE
Fidertasuna • Osasuna • Ongizatea
Korpegi eta gorpuzko tratamenduetan
Españolaz
Manejar eta profeta
Tuenti: 94454 85 90 - 94454 05 98 - 94454 05 98

Herriko Plaza, 1
Tel.: 945 059 504
48160 48160
Bizkaia
Nahikari
Bihxitegia • Eriñju-denda
Izailar pruzpau
Gel-makiler markak
LITUS FORTINA VICTOR

Sondika eta txotxongiloak, bikote ezin hobeak


Ekainaren 13tik 15era bitartean, Txotxongilo Eguna izan zen Sondikan, Unima Euskal Herria elkarteak antolatuta. Hori ez da izan jaialdia bertan ospatzen den lehenengo aldia, izan ere, duela bi urte sondikoztarrek eta txorierritarrok txotxongiloz gozatzeko aukera ere eduki genuen.

Erakusketa batek eta Sondikako Abesbatzaren emanaldiak hasiera eman zioten Txotxongilo Egunari. Asteburuan zehar 12 taldek aurkeztu zituzten euren lanak publikoaren gozamenarako: El Tenderete, Pro-Isma Cero, Colectivo Humo, Irrintzi... Horrezaz gainera, umeei zuzendutako txotxongilo eta makillaje tailerrak egin ziren.

"Publikoa pozik azaldu zen, txotxongiloak ere bai; eta gu, pozaren pozaz", esan digu Enkarni Genua Unima Euskal Herriaren presidenteak. "Lagunak bildu izan gara berriro, gure lanari buruz hitz egiteko aukera izan dugu, barreak egin ditugu...".

Beste alde batetik, omenaldia egin zieten Javi Pérez eta Nati Cuevas elkarte-kideei, eta *Bitxikeriak*, *andanzas de tteres y titiriteros de Unima Euskal Herria* liburua

aurkeztu zuten. "Oso harrera ona izan dugu Sondikan. Etorkizunean ere bertan ikusiko dugu elkar; edo Euskal Herriko edozein txokitan".



EUSKAL EZKONTZA.-

Ekainaren 22an euskal ezkontza egin zuten San Joan jailetako egitarauaren barruan, Sondikan. Ekitaldia Gorantzaileak dantza taldeak antolatu zuen. Antolatzaileak pozik azaldu ziren, izan ere, eguraldi ona eduki zuten eta jendetza handia batu zen bertan. Erreportajea datoren alean ikusiko duzue.

Sukaldaritza eskola inauguratu da Derion

Derioztarrek sukaldaritzari buruzko udal eskola izango dute hemendik aurrera. Inaugurazioa ekainaren 16an eta 17an egin zen eta Aitor Elizegi eta Daniel García sukaldariak hartu zuten parte bertan. Sukaldariok 30 laguneko talde bati eman zieten ikastaroa doan.

Derioko Sukaldaritza Eskola Larrabarri etxean jarri dute. Ikastaroa urritik ekainera bitartean emango dute eta hiru talde osatuko dira: bat, goizez, eta beste biak, arrastiz. Oinarria emateko ikastaroak izango dira; hala ere, ikastaro espezifikoak egiteko aukera ere izango da. Irakasleak sukaldari profesionalak izango dira.



Su detektagailuak jarriko dira mugitzeko arazoak dituzten pertsonen etxeetan

Bakarrik bizi eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonen etxeetan izaten dira sutarik gehienak. Horregatik Mankomunitateak su alarmak jarriko ditu mugitzeko ezintasunen bat duten pertsonen etxean. Guztia, 51 su detektagailu jarriko dira.

Ekimenak hiru helburu ditu: mugitzeko arazoak dituztenak etxean seguru bizi ahal izatea, haien bizitza eta ondasunak babesteko neurriak hartzea eta, azkenik, alerta denbora murriztea.

Sutarik bada, kearen karbono monoxidoak piztuko du su detektagailuaren alarma, eta etxearen jabea eta auzokideak ohartaraziko lituzke. Oso zerbitzu garrantzitsua da; izan ere, karbono monoxidoak ez du usainik, eta arriskuan dagoen pertsona minutu gutxian hil daiteke, konturatu barik. Beste alde batetik, su detektagailuok ordezka daitekeen bateria dute eta, ondorioz, larrialdietarako gune autonomoa sortzen da.

Su detektagailuak ez ezik etxea neurtu eta etxetik irteteko modua erraztuko duen krokis bat prestatzeko aukera ere eskaintzen du Mankomunitateak.

MARMOLGINTZA

GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nabera
48160 DERIO (Bizkaia)

Tfnua.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jeta kidea, 2. Aldean 911 51 29 66
DERIO, BIZKAI

Carnicería
Charcutería
IMAZ



MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Esmerik asko
elortzeagailik

Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garajeak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Saltokia: Pago Kalea, Zamudio
Ordutegia: martitzenez eta eguzenez, 9:00tik 13:00era

Languntzaileak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42


SAETXE
urbanizaciones

Asier Hormaza, aktorea

“Euskalerriratu egin dugu antzezlanana”

Sorginen laratza telesaioari esker ezagutu zuen publikoak Asier Hormaza, baina Algortako aktorearen ibilbidea askoz luzeagoa da. Izan ere, hainbat film eta antzezlan egin ditu, bai telebistan, bai zinean, bai antzerkian. Hil honetan Derioko Gurea Aretora hurbildu da Joseba Apaolaza, Ramón Agirre eta Itziar Ituno taulakideekin batera *Gronholm metodoa* antzezlanana aurkeztera, eta berarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza



Derioko Gurea Aretoa neurri txikikoa da. Zeintzuk nahiago dituzu zuk, antzoki handiak ala txikiak?

Aretoa baino, askoz garrantzitsuagoa da ikusleen jarrera. Publikoa hotza bada berdin dio antzokia txikia ala handia izatea. Hala ere, areto txikietan oro har jende gutxiago biltzen da eta atseginagoa da. Jatorrizko *Gronholm metodoa* antzezlanana oinarrituta, filma egin zen. Ikusi duzu?

Ez, ez dut ikusi, baina Jordi Galcerán jatorrizko antzezlanaren egilea ez zegoen batera ados zinean egindako lanarekin. Gu gure bertsioa egiten saiatu gara. Jatorrizko antzezlanaren arima eta funtsari eutsi diegu, baina gure erara egokituta. Buelta bat eman diogu, nolabait esanda. Ildo honi jarraituz, aipatzekoa da zuzendariak egin-

dako lan ederra. Berak gauza batzuk kendu, beste batzuk eraldatu.... “Euskalerriratu” egin dugu saioa.

Antzezlanaren gaia –langileak hautatzeko probak– nahiko arrunta da, baina pertsonaiek jasotzen dituzten egoerak oso gogorrak dira...

Denetarik dago. Momentu gogorrak dira eta barre egiteko aukera ere izaten dute ikusleek.

Gronholm metodoa antzezlanana oso arrakastatsua izan da hainbat hizkuntzatan. Apustu ziurra da hori euskaraz egitea, ezta?

Publikoak horrelako antzezlanak eskertzen ditu. Lehen egin genuen *Artea* edo oraingo *Gronholm metodoa* saio arrakastatsuak izan dira gaztelaniaz, eta horiek euskaraz taularatzea txalogarria eta eskertzekoa da. Izan

“Ez dut uste antzerkia krisian dagoenik; nire ustez, antzerkia baino, pertsonak gaude krisian”

ere, saria da ikuslego euskaldunarentzat. Zer dela eta *Gronholm metodoa* saioaren arrakasta?

Ez dakit. Osagai asko izan behar dira kontuan: lehenik eta behin, testua ona eta erakargarria izan behar da, hau da, istorioa eta zelan kontatzen den; hortik aurrera, aktoreek ere lagundu behar dute eta muntaketa bera ere ona izan behar da. Elementu guz-



Dunjabalekuna lotu nahi duzu eta aserik balean?
Pozten eta eragiten gure bertsioa ikusleak prestakuntza
praktikoa, ikusleak eta eragileak
Lan moduak aurkezteko aukera izateko

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?



PROFESIONALIZAZIORANTZ BIDE AZKARRA
TXORIERRI
POLITIKORAKA IKERTZEA
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Calle de Mendaketa 10 48940 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 403 40 80 Fax: 94 403 40 81
info@txorierri.net www.txorierri.net

HEZIKETA ZIKLOAK

KIMIKA
Ingeniari-ikertzaile *Gai maita (1.400 ordu)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak *Gai maita (2.000 ordu)*
Telekomunikazio eta informetika sistemak *Gai maita (2.000 ordu)*

FABRIKAZIO MEKANIKOA
• Mekanizazioa *Erti maita (2.000 ordu)*
• Proiektu mekanikoen garapena *Gai maita (2.000 ordu)*
• Proiektu mekanikoen garapena *Gai maita (2.000 ordu)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA
• Merkataritza eta merkataritza *Gai maita (1.400 ordu)*



BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA



“Antzerkiak xarma berezi bat du, baina eroso sentitzen naiz edozein hizkuntzatan eta arlotan”

tien batuketa da azken batean arrakasta ematen duena.

Antzerkia krisian omen dago beti. Euskaraz egindakoa askoz gehiago, ezta?

Dudarik gabe. Betidanik entzun dut antzerkia krisian dagoela, baina ez nago guztiz ados: nire ustez, antzerkia baino, pertsonak gaude krisian. Estatuan bizkarrak eman diogu kulturari; European, aldiz, kulturak badu bere lekua, eta hemen baino askoz gehiago ikusten eta errespetatzen da. Hemen gertatzen ez den moduan, atzerrian normala da antzezlanak egunero ego-

tea, esaterako. Antzerkia azken 2.000 urtean egin da eta egiten jarraitzen da, hainbat kultur adierazpen bezalaxe. Horregatik, ez dut uste benetako krisian dagoenik.

Bi hizkuntzatan eta hainbat arlotan –zinea, telebista, antzerkia– aritzen zara. Non zaude erosoen?

Berdin dit. Argi dago antzerkiak xarma berezi bat duela, publikoa aurrean dagoelako eta erantzuna berehala jasotzen delako. Baina egia esan eroso sentitzen naiz edozein hizkuntzatan eta arlotan.

Telebistak ospea eman zizun. Itzultzeko asmorik?

Hala da, bai, *Sorginen laratza* saioan egunero-egunero agertzen nintzen eta ez dut inoiz horrelakorik berriro egin. Baina, egia esan, telebista egiteari ez diot inoiz utzi: *Pilotaria* telesaioa ibili naiz grabatzen, Estatu mailan ere telesaio batzuetan parte hartu dut...

Aktore batek aitortu zuen telebistan agertu behar zela; bestela, zuzendariak zurekin ahazten direla ematen du. Ados zaude? Hain boteretsua da telebista?

Ez dut uste hainbesterako denik. Telebistan sartu aurretik antzezlan batzuk eginda nituen. Eta orain arte 20-25 egin ditut. Beste kontu bat da zure lanaren oihartzuna. *Sorginen laratza* saioan parte hartzen nuenean jende askok ikusten ninduen eta ezagun egin nintzen. Dena dela, lana atera zait niri lan egin dudaneurrian. Publikoarentzat eragin handia du telebistak, baina zuzendarientzat ez da hain garrantzitsua.

Amaitzeko bitxikeria bat galdetu nahi dizut: aurten Bizkaiko Txakolinaren ordezkari izendatu zaituzte. Zelan hartu duzu?

Ettxera hainbat botila bidali dizkidate eta banatu behar izango ditut. Madrilerak joaten naizen bakoitzean, lagun batek eskatzen dizkit eta eramaten dizkiot. Gehiago eskatu behar dut (kar, kar). Egia esan ez naiz oso ardozalea, baina erantzukizun handia da horrelako izendapena jaso izana eta espero dut maila ematea.



Programak eta Webguneak

zeure neurrira eginda



erabakiak hartzen
lagunduko dizugu

Tel/Fax: 94 656 99 03/01
www.leinak.com

40196 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES
AZURMENDI

www.azurmendi.com

MOBIL: 649 106 132

Tel./Fax: 944 554 150

AM

Formación
y
Traducciones

- Inglés malla guzietan
- Pribatibako erakundeak
- Cambridge Unibertsitateko atzerriko prestatzea, DOU...
- Hiztegiak hizkuntza ezberdientzat

Curaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 61 69

Erreimenterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 451 61 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

Arantza Amondarain Lasa, 4. 412
a.amondarain@euskalnet.net

48190 ULISSA
Tfona./Faxa: 94 454 44 00

Oihane Goienetxe, industria-diseinuako ingeniaria

“Enpresek pixkanaka-pixkanaka ezarri beharko dute ekodiseinua”

Zure karrera-amaierako proiektua saritu dute...

Unibertsitatean Ekodiseinu Gela dago, eta bertan merkatuan dauden produktuak aztertzen dira, ingurugiroa kontuan hartuta horiek hobetzeko. Niri Fagor enpresako ‘Driron’ lehorgailu-lisatzailea ikertzea egokitu zitzaidan.

Zelan izan da prozesua?

Ekodiseinu Gelan prestakuntza jaso nuen hiruzpalau hilabetea, eta ondoren Fagor enpresako IBAI sailean izan nintzen lanean martxotik urrira bitartean. Lehorgailu-lisatzailearen bizi-zikloa aztertu behar izan nuen. Helburua produktu horrek ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien egiteko proposamenak aztertu eta prozedurak ezartzea izan da.

Ekodiseinuaz ari zara, zer da hori?

Enpresak pixkanaka-pixkanaka haiengana-tuz joan beharko diren kontzeptua da. Kostuak, kalitatea, etekinak eta beste alderdi batzuk kontuan hartzen dituzten moduan ingurugiroa ere kontuan hartu behar-

Oihanek Industria-diseinuako Ingeniaritza Teknikoa ikasi du Mondragon Unibertsitatean. Gipuzkoako Peritu eta Industri Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak ‘IV. Memorial Felix Sopelana’ ikerketa tekniko onenaren saria eman dio hil hone-tan Lezamako gazteari.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

ko dute produktua diseinatzerakoan. Adibidez, elektrotresna gehienek erabilera fasean kutsatzen dute gehien, eta hori murrizteko ahaleginak egin beharko dira. Era berean, produktuak desmuntatzen errazak izatea lortu behar da, horien bizi-zikloa

amaitu ostean era egokian birziklatu ahal izateko.

Gustura ibili zara?

Bai. ‘Driron-aren Ekodiseinua’ eman zidaten gaitzat proiektua egokitu zitzaidanean, eta pozik hartu nuen, ingurugiroaren aldeko ekarpena egin ahalko nuelako.

Ingurugiroarekin kontzientziatuta dagoen neska zara. Kiotoko Protokoloa, CO2 isuriak gutxitzeko politikak, hainbat eta hainbat neurri... Beranduegi?

Erakundeak alde ekonomikoa kolokan ikusten dutenean jabetzen dira arazoaz, nire ustez. Neurriak aldeaz aurretik hartu beharko ziren, eta orain ez dagoela zer egi-terik uste dut. Estatuak baldintzak eta neu-riak ezartzen dituzte orain; beranduegi da eta, gainera, ez dira betetzen. Beste alde ba-tetik, energia berriztagarriei buruz hitz egi-tea modan jarri da. Etorkizuneko aukera izan beharko dira, zalantzarik ez, baina teknologia hori ere aldeaz aurretik garatu beharko zen, eta ez orain, beste baliabideak agortzeaz ditugunean. Bonba atomikoa na-hiko azkar asmatu zen; eguzki-panelak ga-ratzeko, berriz, denbora gehiago behar izan dugu.

Produktuak diseinatzen diren enpresa batean egiten duzu lan. Zer gustatuko li-tzaizuke egitea bizitzan?

Gaur egun egiten dudana: edozein gauza diseinatzea. Beno, altzariak diseinatzea, batez ere. Izugarri gustatzen zaizkit altza-riak.

“Bonba atomikoa nahiko azkar asmatu zen; eguzki-panelak garatzeko, berriz, denbora gehiago behar izan dugu”



 **LIBURUDENDA PAPERDENDA**
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 462 29 10 40170 ZAMUDIO (Bukatu)

 **AUXI**
Zentro Mediko Estetikoa

Otsoana, 1, 1. planta 48150 Sondika
Tel.: 94 471 03 04 / 671 60 26 65
amcauxi@telefonica.net

 **MODA INFANTIL**
Tximeleta

Carmikola Arbelo, 8
Telefonoa: 91 424 11 35
Faxa: 94 454 38 26

48100 ULKIO
Bizkaia

ALDEKONEKO JAIK



Gora
Aldakoneko
jaia!

Etorri eta parte hartu

ZIRIKADA
JATETXE

☎ 94 454 5045
Gaztelumendi Plaza, 1
48160 DERIO




INCHAUSTI ESTANKOA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
tlf 94 454 15 41 fax 94 608 95 47 e-mail anaari@euskalnet.net

BASKOLAN
S.L.
construcciones

**Fatxadak, teilatuak,
terrazak eta patioak
konpontzea eta irazgaitzak egitea**

Txozna pol., 2. pabilloa
Idonkolo, 5
48160 DERIO (Bizkaia)
E-maila: baskolan@hotmail.com

Tel : 94 454 56 83
Tel. eta Faxa: 94 454 38 13

Peluquería Bego

estética - solarium

Uribe kalea, 6 beheko 94 tel 94 454 27 97 94 48160 Derio

ALDEKONE FRUTADENDA

Bestorrena, 3 beheko # Derio-Bizkaia # T: 944 069 458

Erakutsi eramateko zerbitzua



MACCITO

www.maccito.com
mac@maccito.com

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFAA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Pol. Txozna Idonkolo kalea, 5 - 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

USTIAPEA,
SALMENTAK, SAT

Komisinoa gogoz dabil beharrean

Santiago, Santa Ana, San Ignacio eta San Esteban. Santuen izendegia ederki ezagutzen dabe Aldekoneko lagunek. Izan be, festa horreek lauak batu, eta auzotar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dabez uztailaren 24tik abuztuaren 3ra bitartean. **AIKOR!** aldizkaria berbetan izan da jai-batzordeko kideakaz.

Argazkiak: Jai-batzordea

Herriko jai guztietan beti antolatu behar diran ekintzak dagoz. Urtero-urtero egin diralako, eta herritarrek halan eskatzen dabelako. Aldekoneko jaiak ez dira salbuespena: gastronomia-lehiaketak, idi-probak, mus txapelketa... "Horreek egiteari itxiz gero, ez ziran bertoko jaiak izango". Baina barrikuntzak be sartu behar dira jai-egitarauan, eta Aldekoneko jaiak nobedadeak be ekarriko deuskuez. Athleticen jokalaria ohiek '3 x 3' bira eramango dabe Derioko auzora uztailaren 31an, eta abuztuaren 3an artzain-txakurren txapelketa izango da San Esteban ermitaren inguruan. Horrezaz ganera, ahalegin handia egin dau jai-batzordeak aspaldian antolatzen ziran ekintzak berreskuratzen: bitsaren jaia eta mozzorro lehiaketa, esate baterako. "Iaz lagun asko batu ginan ekintza horretan. Ederto pasatu genduan, mozzorrorik jantzi ez ebenek be bai. Horregaitik aurtan be oso arrakastatsua izango dala uste dogu, primeran pasatuko dogula. Ea jente gehiago animatzen dan!".



Uztailaren 24an, eguena

19:00: Txupinazoa

20:00: Txitxi-burruntzia

23:00: Berbena, Bizargorri taldeagaz

03:00: Diskoteka

Uztailaren 25ean, barikua (Santiago)

11:30: Kalejira

12:00: Meza

13:00: Dantzen agerraldia

14:30: Marmitako Lehiaketa

16:30: Bitsaren jaia



Jai-egitaraua

17:00: Mus Txapelketa

23:00: Berbena, Irusta taldeagaz

03:00: Diskoteka

Uztailaren 26an, zapatua (Santa Ana)

11:30: Kalejira

12:00: Hilen meza eta gisadua dastatzea

17:00: Txotxongiloak, Kixka taldearen eskutik: Bikote bihurria

19:30: Tortillen aurkezpena

22:30: Hip-hop kontzertuak

01:00: Diskoteka

Uztailaren 30ean, eguaztena

11:30: Kalejira

12:30: Pailazoak, Poco Pico taldeagaz.

17:00: Gorriti eta bere animaliak

22:30: Mozorroren desfilea (umeak zein hel-



duak)

23:30: Berbena, Lisker taldeagaz

00:30: Mozzorro Lehiaketaren sari-banaketa

01:00: Berbena, Lisker taldeagaz

03:00: Diskoteka

Uztailaren 31an, eguena (San Ignacio)

10:30-15:00: 3x3 bira, Athletic Fundazioaren eskutik

11:30: Kalejira

12:00: Meza eta kopaua nagusientzat

13:00: Nazioarteko folklorea: Mexiko

15:00: Txorierriko II. Ragout Lehiaketaren

Beste alde batetik, egun osoan zehar ekintzak egotea erronkatzat hartu dabela esan deuskue.

Egun bakotxean zer egongo dan aztertzea, hornitzaileak kontaktuan jartzea... Hainbat beharri egon behar jake adi, jaiak ondo atera daitezten. Eta hori da, hain zuzen be, gehien kostatzen dan lana. Prestaketan ardurea komisinoko hiru lagunek dabe, eta, aipatu daben moduan, ez legoke txarto laguntza gehiago jasotzea. Baina ezin dira kexatu; gainontzeko taldekiek laguntzen deutsee ekitaldiakaz, eta aurrekoan jai-batzordean egon diranen aholkuak be izaten dabez.

Aldekonekoak auzo-jaiak dira, kalean egoteko modukoak. "Oso giro ona dago. Guztiok ezagutzen dogu alkar, eta kanpotik datozenek be euren lekua dabe berton".



aurkezpena

17:00: Puzgarriak

19:00: Idi-probak

21:00: Txokolatada

Abuztuaren 3an, domeka (San Esteban)

10:30: Artzain-txakurren erakustaldia

12:00: Meza eta kopaua

13:00: Txalaparta, Ugarte anaiak taldearen eskutik

14:30: Sukalki Lehiaketaren aurkezpena

17:00: Mus eta Briska Txapelketa

20:00: Txitxi-buruntzia

20:30: Herri-kantak, Duodeno taldeagaz

21:30: Urdaiazpikoaren zozketa eta berbena

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Uzaren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 454 52 85

Miguel Angel Parés
Aislamientos Derio

-TADIKAK
-PLADURERIKO SABAIAK
ETA APALATOGIAK
-SABAI
ERREGISTRAGARRIAK
-KOKO GARRITU THIMBERO
ETA ANKUSTIKOAK

Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 670 497 928
Fax: 944 541 121

desira
Belleza eta Oinagune Desira

Edertaeun eta Ongizate Zentroa
Uribe kalea 6. zenbakia, eukumako lonja
DERIO
Telefonoa: 94 454 55 73

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7. beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialidade parodontologia bolar baten
- Aurkuntza doan
- Inbrazkapelak, ozen moduan, eskuta elektriko bat eta garbi likid bat
- Especialitatea: umesak

Jatetxea SAN ISIDRO

ERIKO OKULTETAN ESPEZIALIZATUA ETA ERIKO-GOZOGINETZA AFERTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Lomeko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki Inkontinenteen 180 tuki - Sakalderatza tradizionala

Telefonoa 94 454 21 35 Fax: 94 454 14 15 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Urtas-ekintza, erakutsen
Auzokorren komantxak
Mantxak gabi-likid
Molekulak eta likidak
Urtas-ekintza garbitzeki
Ikuskerak
Zahar biltza

Bizkaile Plaza, 1 - Bº Aldikorra
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BECOSA
HEAPAINDECIA

UNIKO HEAPAINDECIA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA
LASER-DEPILAZIOA

Mungialde etorbidea, 20 48160 DERIO
T: 94 454 26 52

tik tak EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:00ra arte
20:00etatik 23:30ra arte
Etxearen erakutsia
zerbitzua: 1 €

Beslorrene 5, Beheko 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

FÁBRICA DE ARMARIOS

Interiores personalizados

Armarios japoneses

Especialistas en revestir interiores de armarios con aprovechamiento 100% del espacio

Armarios a juego de dormitorios en diversos acabados y sistemas de apertura

Exposición BILBAO:
Gordoniz, 39
Tel. y fax: 94 421 57 87

Fábrica/Exposición DERIO:
Pol. Txozna. Idorsola kalea 5, mod. 4
Tel.: 94 406 49 55 / Fax: 94 406 49 42

“Txorierriko bezeroak pozik agertzen dira beti”

Lasaitasuna, etxean bezala sentitzea, naturaz gozatu ahal izatea... Landa turismoa modan dago eta Txorierri ez dago boom horretatik kanpo. Izan ere, baserri turismoa egiteko etxe bi eta hiru landa etxe ditugu hemen. Nieves Martinez de Morentinek Iabiti Aurrekoa baserri turismoko etxea kudeatzen du nebarekin batera, eta Nekatur elkartearen presidentea izan da orain dela gutxi arte. Bere eskutik ezagutu dugu sektore hau.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina eta Gaizka Eguskiza

Baserri turismoa eta landa turismoa, zein da bion arteko desberdintasuna?

Desberdintasuna jarduera motan datza. Baserri turismoak nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jardueraren bati lotuta egon behar du eta jarduera horrek izan behar du jarduera nagusia; baserri turismoa, beraz, jarduera nagusi horren osagarria da. Landa turismoak, berriz, ez dauka loturarik inongo ustiapenekin. Ustiapena

egon daiteke, baina jarduera nagusia turismo ostatuak izan behar du. Modalitate biek badituzte ezaugarri berdin batzuk. Eskualdeko ohiko baserrietan kokatu behar dira eta, etxe berria altxatzen bada, horri ere baserri itxura eman behar zaio. Ostatu txikiak izaten dira kasu bietan, gehienez 12 lagunentzako tokia izan behar dute eta landa ingurunean kokatuta egon. Jabea etxean bertan bizi da kasurik gehienetan.

Landa turismoaren hasierak...

1989. urte inguruan sortu zen kontu hau. Belaunaldi berrien erreleborik ezaren ondorioz desagertzeko zorian zeuden Euskal Herriko baserriak, eta Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuek lehenengo urratsak egin zituzten gure ondare hau babesteko. Europako beste herri batzuetan — Suitzan, Belgikan... — martxan jarritako esperientziak ezagutu eta landa turismoa ekarri zuten aukera gisa. Halaxe sortu zen oraingo baserri turismoa. Hala ere, beste arazo batez konturatu ziren geroago: baserri askotan ez zegoen nekazari jarduerarik. Ondorioz, landa etxeak sortu ziren. Lehenengo baserri turismoko etxea Urdaibain ireki zuten 1990ean: Txopebenta. Lehenengo landa etxea ere Urdaibain ireki zen, 1998an: Arboliz.

Zer da hoteletatik bereizten dituen?

Saiatzen gara bezeroei aditzera ematen baserriko bizimodua zelakoa den gaur egun eta zelakoa zen lehenago. Gure historia, ohiturak... Eta bezeroek ere interes handia izaten dute baserrian, haren historian... Oso harreman zuzena dugu bezeroekin, eta etxean ostatu hartu duten adiskideak balira bezala hartzen ditugu. Kontuan hartu behar da landa turismoan gabiltzan gehienok baserritik gatozela, ez turismo mundutik.

Zaila da bat-batean etxea ezezagunekin partekatzea?

Hasiera batean, elkarrekin bizi ziren jabeak eta bezeroak, baina etxe gehienek aparteko



MIAMENDI, baserri turismoko etxea:

Legina auzoa (Larrabetzu)

Tel: 944557084

www.nekatur.net

Finia Gato: “Ez geneukan etxebizitzarik, eta baserri turismoak aukera bi eman dizkigu: alde batetik, berton bizi gara eta, bestetik, negutegiaren osagarria da. Jendea lasaitasun bila dator eta etxean bezala sentitzen da. Hala esaten digute, gainera, eta eskertzekoa da. Arazo nagusia jendea erakartzeko modua topatzea da, nire ustez. Baina webgunea egiten gabilta, eta horretan laguntzea espero dut. Etorkizuna? Gauzak ez daude ondo gaur egun, eta landa turismoa ere bide horretatik doa. Miamendi orain lau uda ireki genuen”.

“Baserri turismoko lehenengo etxea 1990ean ireki zen eta lehenengo landa etxea zortzi urte geroago”

“*Saiatzen gara bezeroei
aditzera ematen baserriko
bizimodua zelakoa
den gaur egun eta
zelakoa zen lehenago*”

sarrera daukate gaur egun. Hau da, etxearen zati bat bezeroek erabiltzen dute eta beste zatian geure etxebizitza dago. Mesedegarria da guztiontzat; osterantzean, gogorra izango litzateke. Pentsa ezazue! Egutero etortzen dira bezero berriak, eta guk ez guke intimitaterik izango.

Txorierrin baserri turismoko etxe bi eta hiru landa etxe ditugu. Zelan ikusten duzu sektorearen egoera?

Beste eskualde batzuetan baino hobeto gaude, nire ustez. Txorierrin paraje dago Bilbotik, eta aireportua eta Teknologia Parkea ere paraje ditugu. Bezeroen jario etengabea izaten dugu. Jakina, gure bezeroak ez dira bertan 15 egun ematen dutenetakoak. Halakoak kostaldean nahiago dituzte oporrrak eman, eta Urdaibaira edo Gipuzkoa aldera joan ohi dira. Gureak Txorierrira lan egitera-edo datozen bezeroak dira, Done Jakue bidea egiten duten erromesak, Santanderrera doazen lagunak eta gaua hemen egiten dutenak...

Beno, turistak ere izango dira...

Bai. Batez ere, uda aldean. Bilbo eta Guggenheim museoa ezagutzera etortzen dira. Eta hirian baino leku lasaiago batean nahiago dute ostatu hartu. Baina Txorierriko landa-turismoaren bezeroak ez dira turistak %100ean, ezta langileak ere. Haien bien arteko nahasketa dago. Eta gure esperientzia kontuan harturik, egonaldiak ez dira oso luzeak izaten. Guk baserri turis-

moko etxean izan dugun egonaldirik luzeena astebetekoa izan da.

Kalitatezko establezimenduak dira gureak?

Baietz uste dut. Etxe guztiak ondo hornituta daude, instalazio onak dituzte eta guztiek dute Internet konexioa. Zerbitzu pertsonalizatua ematen dugu eta, normalean, zure etxera datorren bezeroa eskualde honetako beste etxeetatik ere pasatu da.

MATSA, landa-etxea
Aretxalde, 153 (Lezama)
Tel: 944556086
www.ruralmatsa.com

Sorkunde Landeta: “Landa etxea aita-amaginarrek ireki zuten orain dela 16 urte. Astegunetan langileak izaten ditugu ostatuan, eta asteburuetan familiak eta etortzen dira. Bezero fidelak dira; batzuk hasierako urteetatik etortzen dira landa etxera. Landa turismoa modan jarri zen orain dela hamar bat urte, eta, modek gorabeherak badituzte ere, deigarria da oraindik. Ekonomia ez dabil ondo, baina bertan jarraitzen dugu”.



Eta pozik agertzen dira beti.

Desberdintasunik badago Txorierriko eta beste eskualdeetako establezimenduen artean?

Desberdintasunak ez dira eskualdeen artekoak izaten, ostatu artekoak baino. Kasu batzuetan, etxe osoa alokatzen da eta, beste batzuetan, logelak baino ez. Alokatzeko etxe osoa jartzen dutenek asterik behin egin behar dute etxeko garbi-ikuzia.

Hästens 

since 1852

Guztion ametselako oheak

www.hastens.com



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

ETIKETA, MATEMATIKA, BAZKARITOKIA, BIZIKLETAKO GUTUENAK, TAPAK



Centrale: 94 458 00 37
Tel: 94 458 00 37
Calatzeleko tel: 010 70 00 04



**Merceria
Karmele**

Txorierriko bierbidea, 7 ZAMUDIO T: 94 452 02 19

**MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

*Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak*

Torrelarragoiti Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel./ Fax: 94 608 01 41 - 2



Diemurreko graduatutik
Kontakidetzak
Eruditutako bezeroekin
Laguntza emateko

Ora kalte, 3. floor: 94 452 28 18 ZAMUDIO



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti Ind., B - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Alokatzeko logelak baino jartzen ez ditugunok, egunero. Gosaria eman behar dugu eta, bezeroek bazkaria eta afaria kontratatzen badituzte, haiek prestatu. Beste alde batetik, logela bakoitzean komuna dugu. Osoak alokatzen direnek komun bakarra baino ez dute izaten normalean, baina etxe horietara lagun-taldek joaten dira, familiak... Beste bezero mota bat da.

Lehen hasi zara baserri turismoko eta landa turismoko etxeen ezaugarriak azaltzen: 12 lagunentzako tokiak gehiezez...

Beno, baserri turismoaren kasuan, plaza horiez gainera, apartamentu bat edo bi ere izan daitezke; 16 plaza egon daitezke gehiezez. Landa etxearen jabeak ez du zertan etxean bertan izan bizilekua, baina baserri turismoaren kasuan bai. Gosaria egiteko zerbitzua derrigorrean eman behar da... Eta espero izatekoa denez, etxeak gutxieneko baldintza batzuk bete behar ditu: gelen neurriak, leihoenak, komunak, egongela... Baldintza horiek Turismo Sailak ezartzen ditu eta guztiak bete behar dira irekitze-baimena lortzeko.

Garestia da landa-turismoa?

Ez. Prezioa zonaren eta ematen diren zerbitzuen arabera ezartzen da. Ostatur 45



ARRIBEITI ZARRA, landa-etxea

Landatxu bidea (Erandio Landa)

Tel: 944710491

www.nekatur.net

eurotan (gehi BEZa) topa dezakegu, baina baita 95 eurotan ere. Hotelek ematen duten zerbitzua eta gurea oso antzekoak dira, baina guk oso tratu xumea eskaintzen diegu bezeroei. Horregatik, nahiago dute gurera etorri. Baserri eta landa turismoetako etxeetan hotelean baino lasaiago egoten dira.

Nondik dator bezeroa?

Ohiko bezeroa Euskal Herrikoa da. Baina Internet erreminta bikaina da eta, hari eskerrak, Euskal Herriko landa turismoa mundu osoan da ezaguna. Estatuko bezeroak batez ere Bartzelonatik, Madriletik edo Valentziatik etortzen dira; atzerriarrak, hainbat herrialdeetatik: Fran-



ARRIORTUA, landa-etxea

San Kristobal auzoa, 29 (Derio)

Tel: 944543044

www.nekatur.net

Julen Fernandez. "Erakundeek bultzada handiagoa eman beharko liokete Bizkaiko turismoari. Txorierrri oso hurbil dago Bilbotik, eta hori abantaila handia da kostaldean dauden baserri eta landa turismoetako etxeen aldean. Turistak Madriletik, Bartzelonatik eta Kanarietatik etortzen dira. Arriortua 2006an jarri genuen martxan, eta esperientzia ona izan da. Etorkizunari ziurgabetasunez begiratzen diot. Iazkoa oso urte ona izan zen, baina krisiaren eragina nabaria da aurten".

tzia, Suitza, Belgika, Alemania, Ingalaterra, Holanda, Japonia, Korea...

Zeintzuk dira sektoreak dituen laguntzak?

Landa etxeek Landa Ingurunearen Garapenerako Sailetik jasotzen dituzte laguntzak; eta baserri turismoko etxeek Nekazaritza Sailetik. Modu independentean lan egiten dugu, baina modalitate biak Nekatur elkartearen barruan daude. Elkarrekin webgunearen bidez laguntzen digu, promozioak egiten ditugu, azoketara joaten gara, aholkularitza jasotzen dugu, ikastaroak antolatzen... Nekatur elkartearen hiru lurraldeetako landa eta baserri turismoetako etxeak gaude; 270, guztira.

Eta zein da sektorearen gabezia nagusia?

Egon, asko egongo dira. Baina prestakuntzarik eza da inportanteena, nire ustez. Turismora beste sistema ekonomiko batek ailegatu gara, eta badaude ezagutzen ez ditugun hainbat arlo: bezeroak nola hartu, etxea nola kudeatu, dekorazioa... Horri dagokionez, jardunbide egokien sistema lantzen gabezia. Hura kudeatzeko sistema

bat da eta eguneroko gauzeekin lagunduko digu.

Modan dago landa turismoa...

Boom hori aspaldian hasi zen; guk baserri turismoko etxea ireki baino lehenago. Jendeak zerbait desberdina nahi zuen eta hura landa turismoan topatu zuen. Eta gauzak ondo egiten direnean, luzaro jarraitzen dute, gainera. Etorkizunean ere hala izatea espero dugu.

Aldaketa handirik izan da baserri turismoko lehenengo etxea ireki zenetik ho-

na?

Sektore honetan hasieratik dabilzanek baietz diote. Aldaketa hori nabarmena ei da bezeroengan: lehen, familiak ziren, batez ere; eta orain, bikoteak, langileak... Lehen etxearen jabearekin bizi nahi zuten ia guztiek; intimitatea nahiago dute orain.

Kuriositatez, nora joaten da oportetean baserri edo landa turismoko etxeen jabea?

(Kar, kar) Ba, edozein turistak bezala, bisitatuko duzun eskualdearen ezaugarrien arabera hautatzen duzu ostatua.

“Ohiko bezeroa Euskal Herrikoa da; hala ere, lagun asko etortzen da Estatutik eta munduko hainbat bazterretatik”

“Prestakuntzarik eza da sektorearen gabezia nagusia”



IABITI AURREKOA, baserri turismoko etxea

Arteaga auzoa, 13 (Zamudio)

Tel: 944522370

www.dormirbilbao.com

Nieves Martinez de Morentin: “Baserri turismoko etxea orain dela zazpi urte jarri genuen martxan. Gurasoek abeltzaintzari utzi, eta oso baserri handiarekin geratu ginen. Baserri turismoari eskerrak, zutunik mantendu ahal izan dugu baserria. Nebak lorategiko landareak ekoizten ditu gaur egun”.



Hotel Tryp Sondika



Janari-eskaintza—
Ejckutibo-menua—
Karta—

—Enpresen bilerak
—Jaun-hartzeak
—Ezkontza-oturuntzak

TRYP
HOTELES

Carretera de la Avarizada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 94 538052 • Fax: (34) 94 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

Loiuko jaietako komisinoa

“Zenbat eta eritxi gehiago jaso, orduan eta hobeak izango dira jaiak”

Igaz baino egun bat gitxiago izango dabe aurten loiuztarrek San Pedro eta Santa Luzia jaiakaz gozatzeko. Egutegiaren kapritxoak, zer egingo deusagu! Halandaze be, jai erakargarriak antolatu dabez komisinokoek: Karina eta Joseba Solozabal hurbilduko dira Loiura, besteak beste. Etor Irazolak, Nerea Revillak eta Gerardo Izquierdok xehetasun guztiak azaldu deuskuez.

Testua: Gaizka Eguskiza

Zeintzuk dira ekintzarik erakargarrienak?

Paella lehiaketa, ezbairik gabe. Guztira, 77 koadrilak hartuko dabe parte aurten, eta normalean ia 2.000 lagun biltzen dira ekitaldi horretan. Egun osoa emoten dau jentek landan: goizeko zortzietan toloak jartzen dira, eta bazkaldu ez eze, afaldu be egiten dabe batzuek bertan. Are gehiago, hurrengo egunean be bazkaldu egiten dabe askok han. Goizean trikitixa izaten da, baita umeentzako pintura lehiaketa be. Arrastian hurrek bitsaren jaira joateko

aukerea dabe. Igaz oso arrakastatsua izan zan hori. Eta egun osoan zehar kale-animazioa eta musika izaten dira. Nuevo Talisman taldearen berbenak eguna boroilduko dau. Oso giro polita egoten da.

Izen bi aipagarri dagoz jaietan: Joseba Solozabal eta Karina. Zergatik Joseba Solozabal?

Itzelezko lana egiten dauelako tokian-tokiko hedabideetan. Joseba Solozabal egunero-egunero ateratzen da telebistan, eta bere katean gehien ikusten dan programa zuzentzen dau. Jenteak maite dau.

Eta Karina, zer dala-eta ekarriko dozue?

Egitaraua urtarrilean egoan itxita eta orduan Karina ez egoan sartuta. Etortzekoa zan talde baten ekitaldia bertan behera gelditu zan maiatzean, eta bere ordeaz, Karina ekartzeko eskaini euskuen bitartekariak. Arin erabaki behar, eta onartu genduan. Batzuei gustatuko jake; eta beste batzuei ez. Baina guztiok buruz dakiguz kantak eta ondo pasatuko dogu. Horregaitik, nahiko baikor agertzen gara, eta uste dogu leporaino izango dogula plaza Karina ikusteko. Izan be, jendeak morboa atsegin dau. Karinak ordubeteko emonaldia eskainiko dau dantzari bik lagunduta. Musika *play-back* eran entzungo da. Kontzertu horrek antolatutako beste ekintzei protagonismoa kentzeak kezkatzen gaitu.

Txorierriko I. Emakume-txirrindularien lasterketa egingo dozue, Derio, Loiu, Sondika eta Zamudioko udalek antolatuta. Zergaitik ez dabe Larrabetzu eta Lezama-ko udalek parte hartu?

Honeek euren lasterketa dabelako, Loroño memoriala, hain zuzen be. Gizon eta emakumezkoen arteko berdintasuna bultzatzea dau helburu lasterketa horrek. Baina Udalak antolatzen dau, ez komisinoak.

Egin gura izan dozuen ezer egin barik gelditu da?

Aurten San Pedro eta Santa Luzia zein egunetan jausi diran kontuan harturta, jaietako egun bat gitxiago dago. Ondorioz, ekintza gitxiago be badagoz: pintxo eta tortilla lehiaketak, esaterako, kendu egin dira. Ea datorren urtean barriro egiten doguzan.

Jai egitaraua ekainaren 27tik 30era luzatu-



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

Les enfants kale animazioa



Jai-egitaraua

Ekainaren 27a, barikua

19:00: Koadrilen jaitsiera, Landatxueta kaletik plazara, Ardoa barrura fanfarrak lagunduta.
19:45: Pregoia irakurtzea, Joseba Solozabalen eskutik.
20:00: LEKE dantza taldearen erakustaldia.
20:00: Paleta Txapelketaren finalaurrekoak, Irtxanek antolatuta.
22:00: Berbena, Egan berri taldearen eskutik.
23:30: Karinaren kontzertua.
00:30: Berbena, Egan berri taldearen eskutik.

03:00: Diskoteka, Zunzunegiren eskutik.

Ekainaren 28a, zapatua

Goizean zehar trikitilariak ibiliko dira herritik. Haurrentzako jolas parkea ere izango da.
10:00: Kalejira.
10:00: 'Loiuko jaiak' IV. Paella Lehiaketa.
10:00: Plater-tiroketa Goikogane Lauroetako landetan, Ehiza eta tiro elkarteak antolatuta
11:00: Umeentzako Pintura Lehiaketa.
14:00: Paellen aurkezpena
16:00: Bitsaren jaia.
17:00: Paella Txapelketaren sari banaketak.

17:15: Les enfants kale-animazioa.

18:00: Erromeria landan, Hotza taldearen eskutik.

21:30: Les enfants kale-animazioa.

23:00: Berbena, Nuevo talismán show taldearen eskutik.

03:00: Diskoteka, Zunzunegiren eskutik.

Ekainaren 29a, domeka (San Pedro)

10:00: Kalejira.

11:30: Meza.

11:30: Haurrentzako jolas parkea.

12:15: Organo kontzertua elizan.

14:30: Bazkaria landan. (Bakoitzak berea ekar dezala)

16:00: Txorierriko I. Emakume-txirindularien lasterketa, Derio, Loiu, Sondika eta Zamudioko udalek antolatuta.

16:30: Haurrentzako jolas parkea.

18:00: Umeentzako berbena, Torromorro luma gorri taldearen eskutik.

19:00: Paleta Txapelketaren finala, Irtxanek antolatuta.

20:00: Sardina jana.

21:30: Erromeria, Beste bat taldearen eskutik.

Arrastian barrakak erdi prezioan izango dira.

Ekainaren 30a, astelehena (Santa Luzia)

10:00: Kalejira.

13:00: Meza.

14:30: Jubilatuen bazkaria, Zabaloetxeko pilotalekuan.

17:30: Sun Magoaren ikuskizuna.

19:00: Txitxarilloa Kable orkestreagaz.

22:00: Patxiko maskotaren erretzea eta txokolatada.

ko da, baina alde aurretik gauza gehiago egin dira...

Bai. Padel txapelketa jokatu zen ekainaren 14 eta 15ean. Ganera, ekainaren 22an Loiu 'Goiko' eta 'Behekoren' arteko partida jokatu zan. Lehenik eta behin umeak ibili ziran, eta gero nagusiak. Ondoren, herribazkaria egin genduan eta 200 lagun inguru batu ginan han. Partidak auzokideek alkar ezagutzeko balio dau.

Loiutarrek itzel pasatzen dabe jaietan, baina horretarako lan handia egin behar da...

Bai, paellen egunean, batez be. Beste herri batzuetan norbera gura dauen lekuan jartzen da, eta bertan egiten dau paella. Loiu, oster, koadrila bakoitzari alde aurretik emoten jako lekua. Komisinoek mekanotuboa jartzen dogu, eta gero lagun-taldeek toloak ipintzen dabez. Hori guztiori apaintzeko, zazpi lagun ibili behar gara hiru egunean lanean. Zazpi baino 14 izanez gero, askoz lehenago amaituko geunke. Halanda be, merezi dau, jentek ederto pasatzen dauelako. Beste alde bate-

“Uste dogu bete-beterik izango dogula plaza Karina ikusteko. Jendeak morboa atsegin dau”

“Jende gehiagoren parte-hartzea -gazteena batez be- botatzen dogu faltan jaiak antolatzeko orduan”

tik, azpimarratzekoa da zein ondo eta garbi gelditzen dan landa erabili ostean. Aurten beirazko kontainera jarriko dogu oraindik txukunago gelditzeko.

Parte-hartze handiko jaiak dira Loiukoak?

Bai, baina parte-hartzea maila bitan neur-

tu behar da. Lehenengo eta behin, jaietan bertan. Jentea ondo pasatzeko prest dago, eta ekintzetan lagun piloa egoten da. Ganera, iradokizunak be egiten deuskuez jaiak hobetzeko. Horrek esan gura dau jaiak loitarrak kezkatzen dabezela: igaz auzokide batzuek udalari deitu eutsien jaiak zirala-eta zoriontzeko. Eta guretzat oso pozgarria da hori.

Beste alde batetik, jaiak antolatu behar dira, eta arlo horretan jente gehiagok parte hartzea botatzen dogu faltan, gazteak batez be. Eta ulertzen dogu batzuetan zaila dala batzarretara etortzea, edo egun bat alferrik galtzea mekanotuboa jartzen, adibidez. Baina etorri behar da, batzarretan emoten diran eritxiak eta iradokizunak oso baliogarriak dira-eta. Eta batzarretara etortzeak ez dau esan gura inongo konpromisoa hartu behar danik. Zenbat eta eritxi gehiago jaso, orduan eta hobeak izango dira Loiuko jaiak. Zamudioko jaietan, esaterako, kultur-taldeak komisinoan dagoz sartuta, eta egoera bera Loiu izatea gustuko izango geunke.

Gora Loiuako jaiak

Erdu eta gozatu



**Jaietan
euskaraz blai!**



Larrondoko Ikastetxea ESPERANZA ALHAMA Lanbide Heziketa



- Zikloetarako ohiko matrikula ekainaren 30etik uztailaren 6ra bitartean
- Erdi eta goi-mailako zikloetarako alde zurretiko inskripzioak, ekainaren 1etik eta 7ra bitartean
- Erdi eta goi-mailako zikloetarako ezohiko matrikula ekainaren 24tik 25era bitartean

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa Erdi mailakoa

- Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
- Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
- Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

- Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
- Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
- Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

- Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
- Elektromekanikoa
- Merkataritzako laguntzailea
- Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

Lanerako prestakuntzako ikastaroak

- Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhamal@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

RESTAURANTE JATETXE AYRREGOITI



Tfn: Fax: 94 453 24 40 / LAUROETA ETORRIETA, 27 / 48180 LOIU-Bizkaia
e-mail: ayregoitik@terra.es // www.restaurantelayregoitik.com

ALTZARIEN ZAHARBERRITZEA

Antzinako altzariak

Agustin Legarreta

Donamendi 13, Larrondo
LOIU - 48180
Tfn: 944586296

“Ez dakit posible izango zan hemen Marmarisekoa lako jaialdi bat egitea”

Goi-Alde Erandiogoikoko dantza taldeak Marmaris uriko (Turkia) udaberriko jaialdian hartu dau parte joan dan hilabetean. Sorkunde Goikouria taldearen presidentek bidaiaren barri emon deusku.

Testua: Jon Goikouria / Argazkia: Sergio García

Zelan bidaia?

Neketsua, baina oso ondo. Erandiotik hiru dantza talde joan ginan: Trabudu, Uztargi eta Goi-Alde; 55 lagun, guztira. Bidaia luzea izan da eta, goizean libre egon arren, arrastiz zein gauez dantzatu behar izan dogu. Ordutegiaren mende ibili gara.

Ezbeharrak izan dozue?

Bidaian hainbeste lagun doazenean, beti izaten da zerbait. Ezbeharrak larriena gure kide batek izan eban, izterrean ebagi bat egin eban-eta. Asko larritu ginan, baina ondo urten eban danak azkenean, zorionez.

Zelango giroa egon da Marmarisen?

Jaialdira zortzi herri konbidau ginduezan. Lehenengo egunean “Olinpiadak” egin genduzan geure artean, eta sokatiran, arraune-

an, igerian... ibili ginan hondartzan. Egia esateko, giro ona izan zan. Baina zortzi taldeok alkarregaz egin genduan ekitaldi bakarra izan zan, talde bakotxa leku eta ordutegi desberdinetan ibili dalako dantzaz.

Eta zelan dantzatzen da etxetik hain urrun?

Oso urduri ibili ginan ekitaldi guztietan; izan be, gure herria eta folklorea ezagutzen ez dituenek inpresino ona hartzea gustetan jaku. Beste alde batetik, zer edo zer ahazten da beti, eta momentu horretan etxean ez zagozala konturatzen zara; ondo edo txarto, dozunagaz egin behar dozu aurrera.

Zelango harrera izan zenduen?

Espero genduana. Dantzari-dantza, Kaixarranka eta Fandangoa oso dantza ikusga-

“Oso urduri ibili ginan ekitaldi guztietan; izan be, gure herria eta folklorea ezagutzen ez dituenek inpresino ona hartzea gustetan jaku”

riak dira eta jenteari gustetan jakoz orokorrean. Emanaldi bakotxean estilo desberdinak dantzatu genguzan. Beste taldeek, barriz, pieza berberak dantzatu zituen saio guztietan.

Zer gustau jatzu gehien?

Marmaris baino ez dogu bisitau. Oso herri turistikoa da; Saloun egotea lakoa da. Baina asko harritu nau izan dogun harrerak. Gugaz batera egon diran taldeak oso atseginak izan dira, baita hoteleko langileak, jaialdiaren arduradunak, udal ordezkariak... Beste alde batetik, izugarri gustau jataldearen artean egon dan kontrastea; izan be, folklore arloko dantza taldeek ez eze, beste talde mota batzuek be hartu dabe parte jaialdian.

Turkiagaz hartu-emonetan jarraituko dozue era honetako jaialdiak antolatzen?

Ez dakit posible izango litzatekeen hemen halako jaialdi bat egitea. Hori Udalaren esku dago.

Bueltauko zinatekie?

Bai, zergaitik ez? Oso gustura egon gara, baina diru mordoa behar da hainbeste lagun mobiteko. Udalak esango deusku zelangoko helburuak edo ideiak dituan datorren urterako.



Centro Dental
Txorierri
Rocio Astorkia Berdegaray
12.6. n° 18300161
Kepa Herguedas Manzo
Cel. n° 40000757
Maria Claude Bilbao
12.6. n° 18300161
Molina 6. bide - 48150 - Condita (salirikienaren aurrean)
Telefono: 944.311.629 - Larmailak: 670.985.602 - www.cdtorierri.com

CLINICA DENTAL
ZAINDUZ
DENTISTAS
-Odontologia orokorra
-Ortodontologia
(urreak eta haiduak)
-Periodontologia
-Hortako faktoreen
abstrakzio dim plasema
-Hortek esekitza
(zuriketa, piercing...)
-Hortek jantzia eta berriketa
Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo
15. alda. bidea 27. lehenengo (Pueblo 484)
Telefono: 94.454.01.01 - e-mail: elozainduz@telefonet.net - 48150 DERIO (Bizkaia)

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbollean jokatu, etorri zaitetz Trippyra, Derioa
Bicheko Kalea Bejo
DERIO



Enpresa-ehuna sendotzea

Behargintza Txorierri Mankomunitateko enpresa-ehunaren agente dinamizatzaile eginkorra da. Ekimen ugari burutzen du jarduera-sektore guztietan, zerbitzu-sektoretik hasita industria-sektore hutsera, proiektuak abiarazi eta finkatzeko estrategiak sendotzeko helburuarekin.



Helburua: lehiakortasuna hobetzea

Lehiakortasuna hobetzea funtsezko elementua da enpresa garatzeko. Behargintza Txorierri hainbat programa jarri du abian, enpresen arteko lankidetzen bidez lehiakortasuna hobetzeko. Horrela, eskualdeko enpresen artean berezko berrikuntza lortzea du helburu eta, bide batez, lehia-aurrerapena ere eskuratu. Enpresen arteko elkarreraginari buruzko azterlana egiten ari da hainbat fasetan eta eskualdeko enpresak bisitatzen ari dira, euren jarduera xehe-xehe ezagutzeko. Izan ere, enpresa parte-hartzaileen arteko elkarre-



ragina sustatu nahi da, baterako proiektu berritzaileak sortzen lagunduko duten enpresa-topaguneak eta elkarraldiak sustatuz.

Behargintza Txorierri "Sinergiak Sustatzeko Behatokia" ezarriko du, Informazio Erlazionaleko Sistema baten bidez (SIR), hurrengo ekiditeko: eragin-eremu berean diharduten gainontzeko enpresen jarduera ez ezagutzeak negozio-aukerak edo elkarren onerako izango diren akordioak galaraztea.

Hondakinak kudeatzeko sistema logistikoa

Behargintza Txorierri hondakinak kudeatzeko sistema integrala eskaintzen die enpresei. Alde batetik, aspaldidanik kudeatzen ditu zurak eta plastikoak doan biltzeko eskariak eta, aldi berean, enpresetan egon daitezkeen edukiontzien eskaerak eta industriadetako zabor-bilketarekin zerikusia duten gorabeherak koordinatzen ditu.

Halaber, industri hondakinak batera kudeatzeko sistema taxutu du eta horni-



tzaile baimenduekin bolumen orokorrak negoziatu ditu, abantailazko esparru-akordioak lortzeko. Enpresek banan-banan hel diezaiekete akordio horiei, hondakin arriskutsuei zein hondakin ez-arriskutsuei dagokienez.

Eskualdeko enpresetan hondakin arriskutsuen kudeaketa erraztea eta merkatzeara da helburua, eta aldi berean, ingurumeneari duten eragina gutxitzea. Sistema honen bidez, hondakinak jasotzeko kostuak txikiagotzen dira, zeren eta garraio-gastuak banakako bilketetan baino txikiagoak izaten baitira, batez ere enpresa txikietan.

Familia-enpresei aholkua ematea doan

Behargintza Txorierri abiarazi duen zerbitzu baten bidez, Mankomunitateko familia-enpresek hainbat alderdiren berri jasoko dute eta aholkua ere emango zaie: ezkontzaren ondasun-eraentzeak, testamentuak, enpresan senitartekoak sartu ala ez, edo dibidendu-politika, besteak beste. Horrela, oinordetzan gerta daitezkeen egoerak planifikatu eta aurreikusiko dituzte, horiek noiz edo noiz enpresen jarraitutasuna arriskuan jartzen baitute.

Gainera, Behargintza EHUKo Familia Enpresa Katedrarekin dabil elkarlanean, Txorierriko familia-enpresak aztertzeko. Bizkaiko sektore pribatuaren % 60 familia-enpresak dira -240.000 lagun inguru-, eta gehienak bigarren belaunaldiak kudeatzen ditu.

Bilboko Merkataritza Ganberak duela gutxi egin duen azterlan baten arabera, Bizkaian 60.000 familia-enpresa daude eta ezaugarri hauek dituzte: 20 langile baino gutxiago dute; metalurgia-sektorean eta metalezko artikuluen sektorean dihardute gehienbat; % 80ren urteko fakturazioa bost milioi eurotik beherakoa da; eta 10 eta 50 urte arteko antzintasuna dute.

Berrikuntzarako toki erakundea

Behargintza Txorierri duela gutxi sortutako Innovanet sareko kidea da. Eskualdean berrikuntza sustatzeko tokiko agentea da eta Mankomunitateko enpresei berrikuntzaren gaineko aholkua ematen die, hainbat erakundetatik abiarazten diren planen laguntzailea baita.

Innovanet agenteak hurbiletik ezagutzen ditu bertoko enpresak eta, ondorioz, zerbitzua eta berrikuntza-laguntzak enpresa bakoitzari egokitu ahal dizkie, kasuz kasu. Esaterako, aldian-aldian Berrikuntza Foroak antolatzen ditu Euskadi+Innova ekimenaren barruan (Eusko Jaurlaritzako Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntzarako Planeari kokatuta dagoena).

Berrikuntza edozein enpresaren eskura dago eta bermea da enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Baina zentzu zabalean ulertu beharra dago; hau da, produktua, zerbitzu edo prozesu berriak, enpresa antolatze edo kudeatzeko modu berriak... kontuan hartuta. Enpresaren estrategia berriz planteatzen denean edo merkatuak berritzen direnean ari gara berrikuntzaz. Kasu guzti horietan, hainbat laguntza ematen da enpresek aldaketa-prozesu horiei aurre egin diezaizkien.



**Behargintza
Txorierri**

94 453 63 70

Txorierri Etorbidea 46
Berreteaga Poligonoa 13A
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Eskolatik lanera, hiru gazteren lan-hastapenak

Amaia Garcia, Maitane Arias eta Sara Oyagüe Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu barik abiatu ziren Mungialde Lan Hastapenerako Ikastetxera, sukaldaritzaz zerbait ikasteko asmoz. Aurten, lanean ibili dira Derion, ostalaritzako hiru leku desberdinetan.

Testua: Ines Serrano

Deriotik Mungiara, zer dela eta?

Sara: Lagun baten bidez jakin genuen Mungian bazegoela LH ikastegi bat eta bertan sukaldaritza ikasteko aukera zegoela, besteak beste. Eta hara joan ginen hirurok.

Aldaketa handia sumatu zenuten?

Amaia: Desberdina da. Taldeak txikiagoak dira, eta klaseak teoriko eta praktikokoak dira; denak sukaldaritzarekin lotuak.

Maitane: Eta horrez gain, egunero bi ordu ematen genituen klasean, DBHko ikasgaiak prestatzeko.

Graduatua ateratzen ahal izateko?

S: Bai, urtean zehar sukaldaritzako irakasleaz aparte, beste irakasle bi izan genituen DBHko ikasgaiak prestatzeko.

Eta sukaldean, zenbat denbora?

A: Beste hiru ordu eta erdi ematen genituen sukaldaritza arloan. Klase teorikoak baziren, eta gero otorduak prestatu (lehengo eta bigarren platerak, postreak...), osagaiak antolatu, platerak atondu, nola presentatu eta zerbitzatu... eta holakoak ikasi ditugu.

Zenbat irauten du prestakuntza mota honek?

M: Ikasturte bi. Baina bigarren kurtsoa azken hiru hilabeteak praktiketan eman ditugu.


Eta zenbat lagunek egin duzue ibilbide hau?

A: Hamar lagun izan gara, bost mutil eta bost neska, oso ondo konpondu gara, gainera. Harreman ona izan da guztion artean.





XAKER
kirol zerbitzuak S.L.



kirol instalazioen kudeaketa: ustiapena, garbiketa eta mantentzeak –
kirol erakusketak
guri mailako pilotari taldeen entrenamenduak –
entrenamenduak eta garbiketa kirol erakundeak
kirol erakunde kudeaketa: kluba, federazioak –
eskolaz kanpoko jarduerak
udalekuak –

Haberriak, 4
48195 Larrabetzu BIZKAIA
944 558 718 / 944 558 143
602 710 632
Ordu: 944 558 718
www.xakerkirola.com



Bisitatu gure bloga
www.blogari.net/tximintx



Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.



ERAKUSKETA
KUPERTU
INSTALAZIOAK

ANIZTASUNA, NEKATZE-ETXETAN, BIZIKLETAK, BIKOTAK, ETXETAN

TF.: 94 656 85 60
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48100 Derio (Bizkaia)

“Hirurok lan egin dugu **“***jatetxeetan; erritmoa guztiz desberdina da, dena oso azkar egin behar da...* **”**

S: Nik lanean jarraitzeko asmoa dut; A eta M: *guk batxilergoa edo beste prestakuntza-ziklorik ikasiko dugu* **”**

Eta praktikak? Nolakoa da “benetako lana”?

S: Hirurok lan egin dugu jatetxe desberdinetan, Txoko Ona, Andrea hotelean eta Laia hotelean, eta alde handia dago: erritmoa guztiz desberdina da, dena oso azkar egin behar da...

M: Lehenengo egunetan galduta ibiltzen zara, ez dakizu zelan egin... Baina gero, astiro-astiro martxa hartzen da, eta aurrera...

A: Dena da berria, lekua, lankideak, lan egiteko modua... apur bat estresagarria, baina lana ona da.

Klasean lasaia, beraz.

A: Bai. Esan bezala, taldea txikia zen. Irakaslearen laguntzaz, gauzak aurrera ateratzen ziren gure erritmoaren arabera. Kanpoan azkarrago ibili behar da.

Baina barruan soilik ez zarete ibili...

S: Egia da. Enkarguak egin izan ditugu: otorduak prestatu eta, kanporako.

A: Udaletxerako ere, hornikuntza lana egin dugu, luntxen batean zerbitzatu...

M: Mungiako ferian parte hartu dugu, sukalkia eginez..., txakolinarenean, txokolate dastatzea ere egin genuen... hainbat gauza.

Amaitu duzue, beraz. Zerbait botatzen duzue faltan?

Hirurak: Dudarik gabe, eskolako giroa. Taldearen lana, irakasleak gure gainean etengabe. Denbora luzea eman dugu elka-

rrekin, eta azkenean harreman estua sortzen da. Lan egiteko eremua atsegina zen. Eta inoiz arazoren bat izan dugun arren, denok ibili gara gustura.

Eta aurrerantzean, baduzue planik?

S: Nik lanean jarraitzeko asmoa dut, zerbait aurkitu ezker. Ikusiko dugu.

A eta M: Seguru asko ikasten jarraituko dugu, batxilergoa (Maitane) edo beste prestakuntza-ziklorik (Amaia). Ikusiko dugu geuk ere.



“Ikasleen lana ikastea euren esku dagoela barneratzea da”

Mungialde LH Ikastetxeak beste tailer batzuk ere eskaintzen ditu sukaldaritza gain, hala nola, iturgintza, mekanika eta ileapaindegia. Orotara, berrogei eta bost ikasle izan ditu aurten. Denetan daude lan prestakuntzarako eta graduatu titulua ateratzeko klaseak, eta ikasleek urtean birritan (urtarrilean eta maiatzean) izaten dute azterketa egiteko aukera. Ikasturtea amaitu baino lehen praktikak egiten dituzte; kasu honetan, Derion bertan dauden jatetxeetan. Ainara Orue larrabetzuarra izan da gure hiru gazteen (eta beste zazpi-

ren) irakaslea, eta pozik dago izandako esperientziarekin. Bere ustez, ikasleen lana ikastea euren esku dagoela barneratzea da, euren buruarekin konpromiso serioa hartuz. Askok ikasi duela kontatu digu, “irakasten ikasten baita gehien”, eta behin eta berriro baieztatzen ditu hiru nesken hitzak, batez ere lantaldeari dagokienez: “Nik uste dut, orokorrean, heldutasuna eskuratu dutela, eta hori lantaldean ikusi da; taldea ona izan da, batua, eta batzuk besteari lagunduz egin dute aurrera. Eta hori gauza ederra da beti”.



DISEINUA | CREANDO ESPACIOS

- eraikin proiektuak (berrikuntzak, lokalak, etxeberritzeak, enberrusketak eta berrakuntzak)
- berrikuntza integralak (etxeberritzeak, berrakuntzak, merkataritza lokalak, enberrusketak, enberrusketak... gurea gurea)
- iturgintza eta obra zibil proiektuak
- 3D modelaketak (infografiak)

biok kale, s/n 48100 MUNGIA (Bizkaia)
www.biokdiseinua.com biok@biokdiseinua.com

tf./ fax: 94 653 70 36
sakeloko tf.: 615 744 637



Iñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

Magalarte Txakolina

ARETXABALETAC IZENA ETA BILABARTEA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Zein da mendi taldearen jatorria?

Aldundiaren eskaintzak ez zituen gure beharrianak betetzen, adin guztietako umeek ezin baitzuten mendi-irteeretan parte hartu, ezta guraso guztiek ere. Guk familia osoari zuzendutako txangoak antolatu nahi genituen, eta ekintza gure kabuz egiteko aukera aztertu genuen. Udalari proposamena aurkeztu, eta autobusak eurek ordainduko zituztela esan ziguten, baina horren truke, ekimena herri osora zabaltzea behar genuela. Eta horrelaxe egin genuen.

Eta helburuak?

Futbola, aerobio eta beste kirol mota batzuen ordezkoko aukera eman nahi diegu ikasleei. Gainera, mendia gurasoek zein seme-alabek elkarrekin goza dezaketengorrunea da. Are gehiago, ikasleek eskolatik kanpo elkarrekin egiten duten jarduerak da, eta gurasoek ere gure arteko harremana lantzeko aukera dugu. Eta ez gabiltza lehian: bakoitzak bere erritmora egiten du ibilbidea, eta lehenago edo beranduago ailegatzeak ez du garrantzirik. Beste alde batetik, seme-alabengan mendirako zaletasuna piztea ere badugu helburu.

Zenbat lagunek hartzen dute parte txangoetan?

Hasieran 60 bat lagunek osatutako taldea ginen, eta gaur egun 115 lagun inguru izango gara. Parte-hartzaile gehienak eskolakoak gara, eta eskolatik kanpokoak 15 bat dira. Irteeretan autobus bi betetzen ditugu eta inoiz hirugarren bat ere behar izan dugu. Autobusak aukera handiak ematen dizkigu, ibilaldia puntu batean hasi eta beste puntu batean amaitu ahal dugulako.

Nola aukeratzen dituzue ibilaldi horiek?

Mendi arduraduna neu naiz, eta niri dago- kit bati edo besteari galdetzea ibilaldi interesgarriak, egokirik, ederrik... ezagutzen duen. Hilero antolatzen dugu txango bat, eta hori hiru lagunek egiten dugu alde

CEP Gorondagane Sondikako eskolako mendi taldea

“Egitasmoa handiago gero, porrot egingo

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Gorka Eguía eta Jon Ander Gangoiti



CEP Gorondagane eskolako mendi taldea (Sondika) Foru Aldundiak eskaintzen duen zerbitzuaren ordezkoko alternatiba bezala sortu zen duela hiru urte. Izan ere, Guraso Elkartek ekintza hori ikasle eta guraso guztiei zabaltzea nahi zuten. Jon Ander Gangoitik ekimenaren berri eman digu.

aurretik. Horrela, talde osoa mendira joan baino lehen badakizkigu nondik ibili behar garen, zein den ibilbidearen zailtasuna eta abarrekoko kontuak. Dena dela, taldean adin guztietako lagunak gaude, urte biko umeak zein aitita-amamak, eta ibilbide errazak

aukeratzen ahalegintzen gara. Normalean zazpi edo zortzi kilometroko ibilbideak egiten ditugu.

Eta nor nekatzen da lehenago?

Gurasoak direla esango nuke nik. Umeek ohitura handiagoko dute korrika egiten eta saltoka ibiltzen (kar, kar).

Nondik ibili zarete?

Oso urrun ez gara joan, egun erdiko txangoak antolatzen baititugu. Bizkaian eta Gipuzkoa aldean ibili gara gehienbat: Ermua Mendia, Punta Lucero, Sabigain, Lehungane, Pagasarri, Ogoño, Atxerreko San Pedro, Pagoeta, Bizkargi, Santiagoko Bidea (Markina-Bolibar)... Unibertsitateak antolatzen duen ‘Tipi-tapa’ martxan ere hartzen dugu parte. Irteerak urritik ekainera arte antolatzen ditugu, eta aurren Ur-

“Umeek eskolatik kanpo elkarrekin egiten duten jarduerak da, eta gurasoek ere gure arteko harremana lantzeko aukera dugu”



bihurtuz genuen”

“*Taldean adin guztietako
lagunak gaude, eta
ibilbide errazak
aukeratzen ditugu; zazpi
edo zortzi kilometroko
ibilbideak egiten
ditugu normalean*”

daibai aldetik ibili gara batez ere. Datorren ikasturtean Zugaztietia (Trapagaran) eta Ezkerraldea bisitatzeko asmoa dugu.

Eguraldia: eragile giltzarria.

Bai, izan ere, horren arabera izango da arrakastatsua irteera bat; edo ez. Aurreten, zorionez, eguraldi ona izan dugu txango guztietan, baina joan den urtean, ez. Eta eguraldi txarra izanez gero, etxean gelditu nahiago du jendeak.

Gabeziarik duzue?

Ez. Ekimena erabat sendotu da hiru urtean eta, nire ustez, horren arrakastatsua da familia osoari zuzendutako irteerak direla, egun erdikoak, errazak... Egitasmo handiagoa eginez gero, hau da, mendi talde federatuta bihurtuz gero, porrot egingo genuela uste dut. Horrek ahalegin handiagoa eskatuko zuelako, gauzak beste era batean antolatu, jendeak denbora gehiago eskaini beharko zion taldeari... Hala ere, maiatzean asteburuko irteera antolatu genuen Asturiasera.

Zelan irten zen hori?

Oso ondo. Bertara 153 lagun joan ginen eta esperientzia ona izan zen. Txangoak egin genituen eta hainbat leku ezagutzeko aukera izan genuen: Puente Poncebos -Bulnes, Arenillas-eko bufoia... Mendi taldeak oso harre-
ra ona izan du hiru urtean, eta beste pausu bat ematea ideia ona izango zela pentsatu genuen. Horrexegatik antolatu genuen asteburuko irteera, eta emaitza hortxe dago: 153 parte-hartzaile. Baina, lehen esan bezala, horretaz aparte ez dugu beste helburu handirik. Hori bai, datorren urteko asteburuko irteera prestatzen gabiltza dagoeneko.

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea. 5 ZAMUDIO
Tfnua: 94 452 12 73

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze Integralak
Gremioen koordinazioa

1. aherendakari 1. obra eta enparantza, 2. beheak
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 406 04 01 - Fax: 94 406 04 08
Móvil: 616 742 788

**Garmendia
ardoak**



Pirou pol. P-3B
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-estekia
HORTZ-PLANTEAK - OSTODONTIZIA ESTETIKOA
TEL: 94 453 13 70

Dr. Iratxe Iñiguez, 11. 1. sol. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 447 63 73
Ud. 1. sol. • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 453 13 70

Goiri '78 S. L.
Servicio Oficial




POL. IZARZA
Tfnua: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDICA (Bizkaia)

ATARRABI



Errementari, 11 • 48150 Sondika
Tfnua: 944 531 928

HARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR

ELABORACION ARTESANA

Okela geuk produktzen dugu;
egiten ditugu odolosteak,
txorizak, txistorrak, solomoak...
Plater aurrekoizinatua

Oñiri Kalea n° 4 • Tel. 94 453 16 17
48150 SONDICA (Bizkaia)

Sabin Askolizaga

Aspegiu Argitaia
Ailinaz

609 47 57 46

Tel: 94 453 0807
Fax: 94 453 6027

Mirinda, 6. itxoa
48150 Sondika-Bizkaia

Iñaki Valladares
Osteopata eta masajista

R.O.P. - 40000

Quiro-Phorma
Osteopatia y Masaje



Mirinda bidea 7. beheak
48150 SONDICA

94 458 89 48

pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO

Isolamendu akustikoa 15
19800 Leizor
Bilaka

tel: 944 533 375


www.proaudiobizkaia.com
izalor@proaudiobizkaia.com

229 €

GALAIISA

Estetika eta ileapaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51



Etengabeko ordutegia

Saldina Artea 1-3. SONDICA

ESTHER FRUTADENDA

Ettxera eramateko zerbitzua

94 471 03 44

48150-SONDICA, Bizkaia

Mateo Etxebarriaga Alkate, 2

Newroz 2008: ku

Hartu munduko atlasa. Begiratu Turkia, Irak, Iran eta Siria banatzen dituzten lerroak, estatu hauen arteko mugak irudikatu gura dituztenak. Atlasak ez du ezer aipatuko, baina harago begiratu ezkerro, Kurduen Herrialdea, Kurdistan, ikusi, sentitu eta ezagutu ahal izango duzu.

Testua eta argazkiak: Igor Urrutikoetxea

Estatutik gabeko nazio handiena osatzen dute kurduak: 35 milioi kide ingurukoa. Horietatik 20 bat milioi Turkiako mugen barruan bizi dira; 8 milioi inguru, Iranen; 4 milioi, Iraken; eta beste bi milioi eta erdi, Sirian. Hizkuntza propioa dute, kurduera, eta gehienak musulman sunniak izan arren, Irango aldean bizi diren milaka batzuk sunniak ere badira.

Muga artifizialek banatzen dute Kurdistan. Lau estaturen menpe dagoen herri honek zapalkuntza baino ez du ezagutu urteetan zehar. Kurdistanek petrolio, gas eta ur erretserba handiak ditu eta horrek oso lurralde gutiziatua bilakatu du aipaturiko estatuentzat. Alde egiten utzi nahi ez duten altxor bihurtu da. Kurduak larrutik ordaindu dute askatasun grina.

Euren arbasoek, mediarrek, asiriarren zapalkuntza pairatu zuten Kristo aurreko urteetan, eta ondoren pertsiar domeinua egokitu zitzaion. Arabiarren erasoak ere jasan zituzten, eta 1514an otomandar eta pertsiar inperioek euren artean banatu zuten Kurdistan, 1920an, otomandar inperioa desegin zenean, Sevres-eko Itunean kur-

duei autodeterminazio eskubidea onartuko zitzaieiela agindu zen arte. Baina hiru urte soilik behar izan zituzten berriz ere engainatu zituztela ohartzeko, Lausana-ko Itunaren ondorioz Turkiak, Britainia Handiak eta Frantziak Kurdistan euren artean banandu zutelako. Lur sail txiki batean, Mahabad-eko errepublika sortu zuten kurduak 1946an, historian izan duten estatu independente bakarra, urtebetegarreanean Iranek suntsitu zuena.

Ehunka borroka, altxamendu eta matxinaden ondoren, Kudistango Langileen Alderdia (PKK) sortu zen 1978an, Abdullah Ocalan-en gidaritzapean. Alderdiak borroka armatuari ekin zion 1984an Turkiako gobernuaren kontra, eta horrek izugarritzko errepresioa ekarri zien Turkian bizi diren kurduak. Zenbaki batzuk: 90. hamarkadan 3.000 herri baino gehiago suntsitu ziren eta azken 30 urteotan 35.000 pertsona hil dira gatazka politikoren ondorioz, preso politiko kurduak Turkian 9.000 inguru direla. 80 eta 90. hamarkadetan ere kurduak Saddam Hussein-en errepresioa ezagutu zuten Irakeko aldean. Horrela, 1988an Halabja-n, "Kurduen Gernika", 5.000 zibil erail zituen Irak-eko gobernuak egun bakaurrean, arma kimikoak erabiliz.

Argi berria

Martxoaren erdialdean Kurdistanera abiatu ginen hiru



GOXO-GOXO LOJITIZUN

Hrestakaler zahatik
Ogi egindero
Bestelak emarguz

Consultas: TtC
48194 Lizama
94 455 47 77
gogogoxoitizun@hotmail.com

GOIKO TABERNA Taberna-jateak

Menu barrialdeak
Barra erakargarria
Aukerak dituztenak

Egunen menua eta karta
Jantokiak eta kokoteak
Jantokizabakiak

R.º Geroztza, 1 • TtC. y Fax 94 455 41 10 • 48194 LIZAMA - Bizkaia

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Marín sarrua, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46

FMC foret

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denbora luze du argia

Basalbeiko Txakolina
Bilbao

Geroztza sarrua, 37
(LIZAMA)
94 455 61 46

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak eta Basteroak
Aisialdirako landak - Apolo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88

Santurtzi sarrua, 87 • 48194 LIZAMA

nexis
www.nexis.es

IP Bida-zaintza Argazkilaritza
Enpresentzako Informatika

Iturrigana, 1 • 48150-DONOSTIA • Tel: 94 455 25 22 - 606 43 69 22



rduen lurraldeetatik barrena



lagun, hil horretan burutu behar zen Newroz-a bizitzeko asmoz.

Newroz berbak 'argi berria' esan gura du, eta jai horretan urte berria ospatzen dute kurduak, negua bukatu eta udaberria hasten denean. Medoek asiriarren aurka izandako garaipenaren ospakizuna ere bada, eta gaur egun pairatzen dituzten tiranietatik askatzeko gogoia ere ezkutatzen du. Horregatik du hain kutsu politikoa sakona, eta horregatik debekatzen du Turkiako armadak urtero. Turkiak 200 kurdu erail zituen 1992an jai honen ospakizuneari, eta aurten ere bi lagun hil eta 500 pertsona baino gehiago atxilotu dituzte herri ezberdinetan.

Hamabost egun eman genituen Turkiako Kurdistanen. Van aintzirak eta izen bereko hiriak eman ziguten ongi etorria. Hiri honetatik Ararat mendiaren magalera hurbildu ginen, Armenia, Turkia eta Iran ba-

“Estatu gabeko nazio handiena osatzen dute kurduak, 35 milioi kide ingurukoa”

tzen diren tokira. Van-etik Hassankeyf-era abiatu ginen. Bertako biztanle asko kobazuloetan bizi dira oraindik. Izugarritzko edertasuna duen herri hau eta beste 37 herritxo presa erraldoi bat egiteko urperatu gura ditu Turkiar gobernuak. Bertako biztanleak egitasmo basati honen aurka mobilizatzen ari dira.

Hassankeyf-etik Lice-ra joan ginen. Lice Turkiako armadak 1994an suntsitu zituen 3.000 herrixketako bat da. Armadak herri horietako biztanleei indar paramilita-

rretako kide egitea agintzen zien, PKK-ren aurka borrokatzeko. Erantzuna ezekoa bazen, herria erretzen zuten; Lice-n, gainera, 16 pertsona hil zituzten. Alkateak azaldu zigunez, herrira bueltatu dira bizitzera eta berreraikitzen dabiltza, nahiz eta bertako 4.000 biztanleak 9.000 soldadu turkiarrez gau eta egun inguratuak dauden.

Job eta Abraham profeten hiria, Urfan, ere bisitatu genuen, eta Nemrut mendira joan ginen, bertako tontorraren bi aldeetan dauden Zeus, Apolo eta bestelako Jainko erraldoien estatuak agurtzera eta tontorra oraindik estaltzen zuen elurraz gozatzera.

Newroz jaia Diyarbakir Kurdistango hiriburuan ospatu genuen, lurralde osotik etorritako milioi bat kurdurekin batera. Turkiako polizi eta armadaren kontrol izugarriak zeuden, eta ikurrina eramatearren identifikatu eta argazkiak atera zizkiguten. F-16 eta helikoptero militarrek etengabe zeharkatzen zuten zerua, zarata izugarria ateraz, baina oztopo guztien gainetik txondor erraldoi baten inguruan milioi bat bihotz zeunden etengabe kantatzen, dantza egiten eta buruzagi politikoa kurduen hitzak arretaz entzuten. Ekitaldi politikoaan DTP-ko Diyarbakir-eko alkateak eta Leyla Zanak parte hartu zuten, besteak beste. Zana emakume oso maitatua da kurduen artean, Turkiako parlamentuan kurdueraz bere herriaren eskubideen alde hitz egiteagatik 10 urte eman zituelako kartzelan.

Kurduak dioten moduan, oztopoak oztopo, “newroz piroz be!” (“Newroz-a ospatuko dugu!”), eta euren Aberri Eguna eurenkin ospatu ez ezik, euren lurra eta jendea ezagutu ere egin genuen. Ohore izugarria guretzat.

CAFETERIA GRISSON

G

Fluxua eramateko janaria
Urtebetzeak egiten dira
Asteartetik igandera zutabak

Garaloitza, 12 B. boko
Telefonoa: 685 75 11 05
www.cafeteriagrisson.com
48108 LEZAMA (Bizkaia)

KIMA

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gutitza: 99 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48106 LEZAMA (Bizkaia)

LEZAMA MOTOR

- Carrocería
- Mecánica
- Electricidad
- Neumáticos
- Pre. J.T.V.

Reparación y mantenimiento
vehículos de marcas F.V.O. y Renault

Desarrollamos proyectos
Personal con experiencia

Polígono Industrial de Lezama, Parcela 10
Teléfono 6, plaza de Lezama
48108 LEZAMA
Teléfono 94 455 19 12
Fax: 94 455 19 13

LEJARRENE JATETXEA

Garaloitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 63 46

LOTERIA LEZAMA

BONOLITUA
LOTERIA PRIMITIVA
1-X-2

GABONTAKO ETA FRIGIETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

SARTZARRA
EURIOMILIADAK

ZERBITZUA, ENPRESENTATZ,
TABERNENTZAT, ETAB

ABITXALDE, 159 • 48106 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONOA: 94 455 64 87

On egin

Hedaberrak, merkeak, txerriak
guztiak, barazkiak, txerriak, txerriak
guztiak, barazkiak, txerriak, txerriak
guztiak, barazkiak, txerriak, txerriak

48108 LEZAMA • 94 455 63 94

Ganadu-azokea, Larrabetzun

Uria sortu zaneko agirian –Juan Infanteak emondako agirian, hain zuzen be- dome- kan azokea egiteko eskubidea egoala agertzen da. Halandaze be, Uriaren garapena nahiko motela izan zan, eta ez ei eben sarritan ospatu. Baina horrek ez dau esan gura inoz egin ez zanik.

Testua eta argazkia: Sabin Arana

Francisco Perearen hilketa zala-eta, badakigu azokea noizbehinka egiten zala. Erreferentziak hilketaren barri emon zan doku- mentuan irakurri daiegun. “1854. urteko otsailaren 13an, Meabedar Antonio alkatea zala, zerraldoa aurkitu eben Marutegigana inguruan. Eta alkateak ikerketa-tramiteak hasi zituan”. Bide batez, nahiko diligentzia gaurkotuak izan zirala esango dogu: autopsia egin eutsien eta txostena oso zehatza

izan zan benetan. Eusebio Aranguren zirujauak be oso behar zehatza egin eban. Beste alde batetik, lekukoek esandakoaren arabera, bezperan ganadu-azokea egin zala jakin izan dogu. Justo Gazteluk hau deklaratu eban:

“Otsailaren 12an, domekaz, herriko tabernara joan zan arrastiko lauretan, eta han Zornotzako Francisco Perea eta Francisco Etxano-Jauregiaz egin eban topo. Zerbait

hartu eben eskotean eta honela, ordubete emon eben gitxi gorabehera. Ez eban emoten Perea edanda egoanik, eta ez eban esan ezer eukanik inoren aurka”.

Justok ganadu-azokea aitatu eban deklazarazinoan, eta beste lekuko batek be bai, Jose Madariagak azokaren ganeko aipamena egin eban. Martin Uriguenek be aitatu eban feria: Herriko plazan ospatu zan, “ohi dan legez”. Beraz, hori ez zan azokea egiten zan lehenengo aldia. Fermina Etxano-Jauregi Zabaladar Juanen emazteak esan ebanez, Preak arda-laurdena eta ogi zati bat eskatu zituan. (Lehen ohikoa zan ogiagaz eta ardaugaz bazkaria egitea etxetik kanpo). Oihalezko jaka eta prakak, baserritarren txanoa eta abarkak zituan jantzita.

Agirian be agertzen danez, Martin Uriguen eta Antonia Basaraz Uribasoko etxean bizi ziran; bata etxearen alde batean bizi zan; eta bestea, beste aldean.



Uribaso etxea Marutegirantzako bidean dago, Uritik Zornotzarantz doan errege-bidearen ondoan. Etxea Uriaren basoa izandako lurretan altxatu zan.

“ Francisco Perearen hilketa zala-eta, badakigu ganadu-azokea noizbehinka egiten zala Urian ”

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejedo
C/ de Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Biskaiak)
T: 94 406 035 038
Móvil: 607 406 613

R P A
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BITXITZEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Biskaiak)

multiprecio
Rakel
(Gorbea, Uribidea) - 401 60 03 030
Sakelako telefonoa: 665 70 28 35

lurrindegia MAMEN mertzeria
Gailko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

ZUTARRI S.L.
HARGINTZA, OROKORREAN.
C/CELTANO AURRERAKOEN HERRI LARRABETZUN 100M
BERRITATZA, PTA. ARRIEN, BOLDURAK
URTEZ HANIZ APANGARRIEN PZARRAK, PZAK...
Guztietan 125 mila argita. 48196 - Lezama - Biskaiak
TEL. 652.724.182 - Fax 944.334.275
Argitak gela argitak, orratz kargitak. e-mail: zutarris@psk.com

Loiuko eskola zaharrak (1934. urtea)



1 Maritxela Gaztañaga (Sindikakoa) 2 Begoña Gaztañaga (Malle) 5 Juanita Astobieta (Antzubarri) 6 Pantxi Arteagoitia (Txiline) 7 Rufinita Oruburu (Alontzoti) 8 Tere Aurrekoetxea (Elorta) 9 Nieves Arteta (Etxatxu) 10 Rosario Sagardui (Errotatxu) 11 Carmen Arteta (Etxatxu) 12 Encarna Begoña (Zabale) 13 Garbiñe Sertutxa (Estankokoa) 14 Presen Ugarte (Fanturtene) 15 Begoña Elordui (Uri) 16 Felisa Sustatxa (Alontzoti) 17 Tere Elordui (Erraldene) 18 Jesusa Bilbao (Zabale) 19 Rosario Bolunburu (Karlane) 20 Maritxu Elordui (Erraldene) 21 Maria Bilbao (Larrauri) 22 Benita Astobieta 23 Eleuteria Begoña (Zabale) 24 Maria Ledesma (Bentabarri) 25 Nieves Larrondo (Beiti beheko) 26 Juanita Ledesma (Artetxene) 27 M^a Carmen Ugarte (Larrauri) 28 Antonia Sustatxa (Alontzoti) 29 Pilar Begoña (Zabale) 30 Rosario Bilbao (Karlone) 33 Maria Larrondo (Beiti beheko) 34 Angelita Bilbao (Larrauri) 35 Milagros Ugarte (Lauro txikerra) 36 Pilar Sagardui (Errotatxu) 37 Antonia Begoña (Antontxune) 38 Maria Urrutikoetxea (Lastikorta) 39 Simona Bilbao (Karlone) 40 Pepita Del Moral (maestrea) 41 Rosa Rodríguez (Larraoetxe) 42 Maria Begoña (Larraoetxe) 44 Carmela Gaztañaga (Beiti Goiko) 45 Pantxike Larrondo (Goi-kotxe) 46 Miren Larrondo (Kukulu) 47 Rosa Oruburu (Alontzoti) 48 Juanita Saez (Alontzoti) 49 Inazia Astobieta (Antzubarri) 50 Milagros Larrondo (Kukulu) 51 Mari Gaztañaga (Malle)



Loiuko eskola zaharrak

Loiuko eskola zaharrak Larrakoetxen egozan antxina, Udaletxe zaharrean (Larrakoetxe jatetxea, gaur egun). Mutilak beheko solairuan izaten ziran eta ganean, udaletxea. Neskak atzeko aldean egoten ziran. Argazkian eskolako neskatoak doguz, Gerra aurreko argazkian, 1934. urtearen inguruan.

Falta den izenen bat ezagutzen badozu, edo gure datuak ez badira zuzenak, halan jakinarazotea eskertuko geunskizu. Zelan?: 944523447 telefono zenbakira deituz, **aikortxori@aikor.com** helbidera idatziz edo **www.aikor.com** > txokoak > Antxinako argazkiak atalean erantzuna utziz.

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzailea eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

Aurreko galderaren
erantzuna:
ekainaren 15ean

Irabazlea:
Ioritz Larrabeiti



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi lagunentzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Nortzuk izan dira Pumse txapelketan?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Riesling eta Gewürztraminer

Gustatuko litzaidake mahats zuri mota biren gaineko ohartxo batzuk zuekin partekatzea. Izan ere, horiek interesgarritzat jotzen ditut, eta ez dira oso eza-gunak, beharbada.

Riesling. Klima hotzetako barietatea da, eta Alsazian (Frantziaren ekialdea) eta Alemanian landatzen dute gehienbat; hala ere, gero eta leku gehiagotara zabaltzen ari da, gure lurraldera kasu. Berton txakolin batzuen osagarri erabiltzen da, beti ere portzentaje mugatuetan. Barietate horretatik ardo lehorrak ekoizten dira, garraztasun nahikoa eta izaera handikoa dituztenak. *Chardonnay* barietatea baino interesgarriagoa dela uste dutenak ere badaude, baina gu ez gara horretan sartuko. *Riesling*-ak frutak (zitrikoak, irasagarra, albertxikoa...) ekartzen dizkigu gogora, mineralak (karburoak, arbelezkoak...) eta melengak gezetan (badaude benetan bikainak direnak).

Gewürztraminer. Hau ere Alsazia eta Alemaniako ohiko barietate aromatikoa da, penintsulan oso interesgarriak diren adibide batzuk baditugu ere. Barietate hau *Traminer* barietatearen mutazioaren ondorioa da. *Traminer*-ra Italiaren iparraldeko izen bera duen herriko barietatea da, eta izenak 'Traminer aromatikoa' du esangura. Mahats honek ez zaituzte axolagabe utziko: aldeko zein kontrako pasioak sortzen ditu. Dastatu behar duzue! Fruta exotikoen usaina ekartzen digu gogora, perfume handiko loreak (geranioa, arrosa, jasmína...), espezia melengak (jengibre, kanela...), eta, batzuetan, kosmetikoak.

Barietate biak bikainak dira krustazeoekin eta arraineekin dastatzeko; eta melengak erabat aproposak dira solasaldia ahaztezina egiteko.



Iñaki Suarez,
sumillerra

Etxeko sukaldaritza

Untxia saltsan



Maite Lekerika,
sukaldaria

Osagaiak


(lau lagunentzat):

- Kilo bat untxia
- Kipula handi bat
- Azenario bi
- Tomate heldu bat
- Lau berakatz atal
- Piper berde bat
- Oliba-olio txorrostada bat
- Edalontzi txiki bat ardu zuri
- Koñak txorrostada bat
- Uruna, gatza eta ura

Prestatzeko era:


Untxia txikitu ostean, gatza egin eta urunetatik pasauko dogu. Barazkiak garbitu eta zatitu egingo doguz. Oliba zartagin baten ipiniko dogu berotzen, eta untxia hantxe prijiduko dogu. Gorritzen daneko, untxia atera eta barazkiak botako doguz. Hareek erregosi egingo doguz. Untxia eta barazkiak kazola baten sartuko doguz. Koñaka bota eta sua emongo deusagu alkohola erre arte. Orduan, ardu zuria bota, eta urez estaliko dogu. Kazolari estalkia ipini eta ordu erdian izango dogu su motelean. Untxia kazolatik atera eta barazkiak irabiauko doguz. Untxia eta barazkiak kazolara sartuko doguz barriro, saltsea egin arte.

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 08

Bocateria



otarteko Pizzeria

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 9 44 52 11 42

PATXI COOP. T.X.
Concesionario Zamudio



☎ ifone: 94 452 25 87
670 87 32 34
Ugaldetxearen Indutxatzea I
48170 ZAMUDIO - Bizkaia



Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

NAGUSIAK

Aulki bat elurretan

U. Alberdi

31 baioneta

A. Etxeberria

Etxearen negarra

F. Juaristi

Morto Viviace

J. Arretxe. Uztailek 14, festa nazionala Parisen, eta gaua ospatzeko Sena ibaian doaz Miarrizteko opera-korukoak, *bateau-mouche* batean afaltzen era kantari. Bat-batean, baina, haietako kide baten gorputz txikitua agertuko da ur gainean.

HAUR ETA GAZTE

Ondarroako piratak

A. Urkiza

Kafka eta panpina bidaiaria

J. Sierra i Fabra

Judy Moody oso umore txarrez dago...

M. McDonald

Komunean galtzen naiz

L. Bilbao

MUSIKA

Made in Euskal Herria

Esne Beltza. Soinu, erritmo (soul, ska, reggae) eta hizkuntzen arteko nahasketa dago lan honetan.

Helmuga

Latzen

Euscat

Trilizio

Eguzkiaren zain

Haitzama

DENBORA PASA

LETRAZOPA

M	A	M	E	R	S	Z	O	U	H	L	A	G
A	L	P	F	X	D	H	D	G	T	G	U	F
T	T	M	Ñ	P	J	D	B	F	I	S	E	H
R	A	G	Z	B	O	P	R	N	S	Z	G	K
A	S	Y	Y	H	N	B	E	B	O	R	I	D
L	U	I	G	E	I	K	O	K	E	B	A	F
L	R	J	F	R	N	D	Ñ	F	I	Z	D	B
E	X	L	I	R	E	L	U	Y	T	P	N	E
K	A	J	N	U	R	B	P	N	Ñ	J	Y	O
T	K	M	U	S	T	U	R	R	E	I	H	U
O	N	X	L	Z	X	T	Ñ	U	M	X	G	Y
D	U	M	K	Y	S	M	E	A	Ñ	K	J	E

A	T	F	I	L	P	A	O	P	I	O	S	N
F	R	Y	G	O	B	E	G	I	E	F	U	H
R	E	O	P	M	A	L	H	K	O	Ñ	R	J
E	Z	D	K	B	E	S	D	Ñ	J	A	S	G
G	E	I	D	O	P	E	Z	A	E	L	U	I
U	I	R	B	R	S	B	J	K	J	K	L	Y
D	R	H	G	Ñ	F	P	B	R	U	S	O	L
Y	R	I	J	B	A	O	E	L	T	F	A	T
H	A	Z	D	P	M	S	P	A	Y	Ñ	U	N
E	L	A	U	Z	X	H	M	U	T	K	X	U
X	E	E	N	N	N	N	T	S	G	X	M	Z
S	B	I	X	E	R	R	A	L	K	X	Y	M

Jarraituko dogu gorputzeari adi. Ia gai zaren **buruan ditugun 7 atalen izenak** aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 71. zenbakiaren erantzuna. Buruan ditugun 7 atalen izenak.



**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



SHIADE

estilo handiko altzariak



690€

* Cabezal, mesitas y luces



desde **990€**



870€

apilable
Según foto 280cm



850€

solo piel

Beherapenak

hasta

60% dto.

Loiu
c/Txorierri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90
Horario: 10:00 - 20:00

www.shiade.com